



herritxikieta**n**barrihandiakemoten

2019

urtekaria

• LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO •

HITZA

www.lea-artibaietamutriku.hitza.eus





150. URTEURRENA

Uribarren Abaroa

fundazioa ► Egoitza
Eguneko Zentroa

www.uribarren.es



94 684 00 55 • 630 988 790
Riogo de Arteta 6000054 • 48260 LEKEITIO

Harian



LARRAITZ IBAIARRIAGA ETXABURU

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO
HITZAREN ZUZENDARIA

Ezagutza predestinatuta dauden pertsona guztiak hari gorri ikusezin batez lotuta daudela dio Txinatik

datorren kondaira batek. Berdin dio distantzia edo denbora, hari hori ez da sekula desagertzen, atzamarrei estu-estu lotuta jarraitzen du. Apurtezin.

Hizkiz, hitzez, esaldiz osatu-tako haria da gurea. Ikusezina da sarritan, entzun, irakur edo idazten ez denean; erabiltzen ez denean. Ikusten dena, aurrez aurkitzen dugunean etxean, lagunartean, kalean.... Euskarak apurtezina dirudi; bateko eta besteko erasoei aurre eginez, urte luzez bizirik dirau. Europako hizkuntza zaharrena da gurea, baina Txinako kondairak dioenaren kontran, apurtu daiteke.

Hauskorra izan ez dadin, apurtu ez dadin, denok zizelkatu beharko dugu, hariz hari forma eman, hariz hari osatu,

hedatu... Kulunkatu, mugitu egin behar da, ahal den guztietan, eta ahalik-eta gehien luzatu, urrunago heltzeko; askatu, muga gabe. Arnasa eman, xuxurlatuz, maitekiro, indarrez.

Egoki erabili behar dugu, eguneratuz, baina orain arteko ibilbide luze bezain oparoa ahaztu gabe. Berdintasunean oinarritutakoa, askatasunean aineratutakoa, oinarriko eskubideetan eraikitakoa behar du izan. Asko baino, ondo maitatu behar dugu!!!

Azken ideia hortan oinarrituta, Maita Dezagun Ondo lelopean, Euskal Herriko txoko ikusgarriak agertzen ziren bideo ikusgarria zabaldu genuen sare sozialetan. Izenpetu gabeko bideoa zen, bertokoa, hurrekoa, geurea mai-

tatzeko gonbidapena egiten zuena. «Asko maitatu baino, maita dezagun ondo», entzuten zen bertan, Miren Amurizak 2016ko azaroaren 30ean Berria-n idatzi zuen zutabe baten hitzak oinarri hartuta: «Maitatzea gradu bat da bere horretan; maite duzu edo ez. Ala inor maitatu daiteke gutxi? Beraz, kontua ez da zenbat, baizik eta nola». Apirilean jakinarazi genuen bideoaren atzean HITZA zegoe-la, eta Hitzakide egiteko gonbitea zabaldu genien bertokoa-ak merezi duela uste dutenei. Izan ere, kondairako hari ikusezinak bezala biziraun nahi badugu, guztion ekarpenagaz izango da. HITZAK 16 urte darabmatza hariari tiraka, eta denon bultzadagaz lortuko dugu beste bat betetzea.

Lege Gordailua: BI-2906-03
Egoitza nagusia:
Arretxinaga Etorbidea, 1 • 48270 Markina-Xemein
Telefona: 94-684 44 36. Faxa: 94-684 44 33.
Mutriku. Barrenkale, 19- behe. 943 603 468
E-posta: lea-artibai@hitza.eus
Webgunea: www.lea-artibaietamutriku.hitza.eus
Zuzendaria: Larraitx Ibaibarriaga Etxaburu.
Kudeatzailea: Ama Lur Bedialauneta.
Publizitatea: Maribi Fernandez 600 57 14 26.
mfernandez@hitza.eus

Testuak: 11barri / Lore Bengoetxea
Argazkiak: Lea-Artibai eta Mutriku HITZA | Josu Zabala |
Ondarroako Udala | Laura Lopez (EHU) | Geoparkea |
Lekeitioko eskola publikoa | Bidegileak bilduma | Ahaztuen oroimena |
Mutriku Udala | Bilbao Bizkaia Ur Patzuergoa | Markina-Xemeingo Udala |
Elikagaien bankua | Xistera | Lekeitioko Udala | Ispasterko Udala |
Ondarroako kirolaren leihoa | Ainhua Kesan | Udabarriak | Lea-Artibai
Amankomunazgoa | Lea Ibarrako Mankomunazgoa | Iker gazte |
Leartibai Garapen Agentzia | 47ak herria | Garraitx |
Alba Villar • Faro de Vigo | Aulestiko motorzaleak taldea | Odolkideak |
Amagoia Basurko | Bizkaiko Foru Aldundia | Amorotoko Kultur Taldea |
Leire Cereza | Facebook | Uhagon kultur elkarte | Aingeru Bidaurreta
Photography | Irekia | Artzabal surf elkarte | EMA | UEMA | Euskaltzaindia |
Leixarra elkarte | Borja Agirregomezkorta | Karmelo Rubio |
Ikasle abertzaleak | David Herranz | Ur Lekeiti | Errigora | Euskal Zine Bilera
| Mikel Deuna egoitza | Bapo bapo produktzioak | Leartibai Garapen Agentzia |
Carrera | Yaalah | Aitor Ispizua Uskola |
Durangoko Azoka | Traola produktzioak
Diseinua eta maketazioa: 11BARRI / Eli Azpiazu

ERREDAKZIOA Mutriku - Ondarroa - Gizaburuaga
Nerea Bedialauneta Alkorta 607 49 01 63
ondarroa@hitza.eus; mutriku@hitza.eus
Etxebarria - Lekeiti - Markina-Xemein
Eider Mugartegi Urizarbarrena 607 49 01 60
markina-xemein@hitza.eus; lekeiti@hitza.eus
Aulesti - Berriatua - Ziortza-Bolibar
Asier Alkorta Bengoetxea
607 49 01 67 / lea-artibai@hitza.eus
Munitibar - Amoroto - Ispaster - Mendexa
Aintzina Monasterio Maguregi • Ander Makazaga Conde
647 35 53 32 / ea@hitza.eus

Lea-Artibaialdeko Hedabideak S.L.ko kideak eta Lea-Artibai eta Mutriku beste 60 eragile



2019AN HITZA DIRUZ LAGUNDU DUTEN UDALAK:

Amoroto, Aulesti, Berriatua, Etxebarria, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeiti,
Markina-Xemein, Munitibar, Mutriku, Ondarroa eta Ziortza-Bolibar.



Hitza-k **Bai Euskarari**



zerbitzua eta
lana euskaraz



2019 URTEKARIA




➤ Aurkibidea

Euskara.	04
Kirola.	06
Politika.	08
Ekonomia.	10
Kultura.	12
2019 Zenbakietan.	13
2019, hilez hil.	
Urtarrila.	16
Otsaila.	20
Martxoa.	24
Apirila.	28
Maiatza.	32
Ekaina.	36
Uztaila.	40
Abuztua.	44
Iraila.	46
Urria.	50
Azaroa.	54
Abendua.	58



JARRAI GAITZAZU SAREAN ERE:
www.lea-artibaietamutriku.hitza.eus

Lea-Artibai eta Mutriku HITZA [orrialdea]
@leakohitza



UEMAK Iñaki Arregi ikerketa beka sortu zuen

MARKINA-XEMEIN// Iñaki Arregi ikerketa beka sortu zuen UEMAK, helburu hone-gaz: udalerrri euskaldunen garapena aztertu, ikerketa sustatu eta euskal soziolinguistikaren inguruko ezagutza areagotzea. Arregik UEMA sortu zuen, eta bekagaz omendu egin nahi izan zuten.



Korrikak euskararen mezua zabaldu zuen inguruotan

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU// Zortzigarren egunean sartu zen Lea-Artibai eskualdean 21. Korrika, *Klika* leloagaz. Eskuz esku eroan zuten euskararen lekukoa, Ispasterren sartu eta Mutrikuraino. Ordu erdiko atzerapena-gaz sartu zen Lea-Artibain, 01:50 aldera, Le-

keitiko Amandarri triatloi taldekoen bidez. Herrietatik kanpoko tartetean bereziki azkar igaro ostean, sasoiz irten zuen Mutrikutik, 06.30ean. *Kalaputxi* herri aldizkarikoek egin zituzten azken metroak, Mendarora bi-dean, Gasteiz helmuga hartuta.



'Arnasa gara' kanpaina, berton ere bai

LEA-ARTIBAI// Euskararen arnasmuneen garrantzia nabarmendu zuten *Arnasa gara* kanpainaren aurkezpenean. Eskualdean bi saio egin zituzten; azaroaren 24an, Lekeition; eta abenduaren 1ean, Markina-Xemeinen. Arnasmuneetakoak kontzientziatu nahi izan zituzten, eta, era berean, aitortza egin zitzaizen.



Zientzia eta euskara uztartzen dituen saria

LEKEITIO// Asier Lopez Eiguren lekeitiarrak VI. Koldo Mitxelena Saria irabazi zuen, hain zuzen, zientzia alorrekoa. Saria bi entitatek ematen dute, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak, helburu batez: euskarazko ikerketa bul-tzatzea. Bost arlotan banatzen ditu sariak, tartean, zientzian.



A | HK

AKARREGI HAGIN KLINIKA

Juan Jose Akarregi Loyola dokt.
Mediku estomatologoa
Kolegiatu zb. 573

mug.: 688826831 t. / faxa: 94 684 27 02
Paskual Abaroa Etorbidea 26 bis-behea. **LEKEITIO**



HITZAK webgune berria estreinatu zuen

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU// 2019 hasieran, HITZAK webgune berria martxan jarri zuen. Erabilgarritasuna erraztea bilatu zuten aldaketagaz. Horregaz batera, harpidedunen zako atala sortu zen, Hitzakide atala. Bertan, hainbat abantaila azaltzen dira.



Errigora, elkartasunerako bide emankorra

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU// Beste behin, Errigora kanpaina martxan jarri zuten. Urte hasieran, olio eta kontserbak ipini zituzten eskura, eta urte amaieran, saskiak. Hiru eskatu ahal ziren: beltza, produktu ekologikoz osatutako berdea eta zuri berezia, gustuen

arabera. 2019ko udazkeneko kanpaina aurkeztu zutenean argitu zutenez, 2013tik, hau da, lehenengoz kanpaina egin zutenetik, ia 1.000.000 euro bideratuta zeuden Nafarroa hegoaldean eta erdialdean euskarari hauspoa ematen ari diren proiektuetara.



Errenta aitorpena euskaraz egiteko deia

LEA-ARTIBAI// Estreinako, eskualdeko hiru udal batu ziren 2018ko errenta aitorpena euskaraz egitera animatzeko, hau da, Ondarroa, Markina-Xemein eta Lekeitioko udalak. Lau finantza erakundek eta sei aholkularitzak bat egin zuten kanpainagaz, bakoitzak bere esparrutik eragiteko.

Gidabaimenak euskaraz ateratzeko bidean

ONDARROA// Udalak gidabaimena euskaraz ateratzeko diru laguntzak eskaini zituen, osterara ere. «Gazteen %90ek euskaraz egin arren, gidabaimena gaztelaniaz atera ohi dute».

Euskaraldirako motorrak berotzen hasi ziren

LEA-ARTIBAI// Euskaraldira begira giroa berotzen hasteko, hainbat ekimen antolatu zituzten, Kike Amuarrizek, Lekeition, zera aldarrikatu zuen: estrategikoa izango litzatekeela Lea-Artibain euskara elkartearen sortzea.

Euskaraz jolastuta euskarari eupada ematen

LEA-ARTIBAI// Herribixik Euskararen eupadea lehiaketa antolatu zuen. Helburua zera zen: eskualdeko euskalkiak landu eta gazteen arteko ezagutza bultzatzea; alboko herrietara joan, eta jolas bidez jendea ezagutzea. 20 taldek parte hartu zuten, 8tik 16 urtera arteko 100 gaztek.

ADAKAITZ

era guztietako egur lanak

94 683 21 68
605 715 404 • 657 799 809

adats
ANDONILARREA

**ILEAPAINDEGIA
EDERTZEZENTROA**

**BEHEKO PLAZA, 1w
MUTRIKU 943 60 39 45
HONDARTZA KALEA, 13
DEBA 943 19 27 00**

A&C
Autokonkretak

Tel. 94-608 18 95
Arrieta Ibañeta, 2
48700 OIARZARREA

CHUPELA
Autokonkretak, 100-1100
Agintarrietan 900 - 1100

Autokonkretak



Mireia Arrillaga, gorengo postuan triatloian

LEA-ARTIBAI// Mireia Arrillaga Garraitzeko lekeitiarrak saria eskuratu zuen, hain zuzen ere, 2018ko euskal zirkuituko saria, 2019ko urtarrilean egingandako triatloi galan. Era berean, Koaxiko Arantza Burgoa ondarrutarrak Emakumezkoen beterano 2 mailako sari nagusia bereganatu zuen.



Traineruek ikuskizuna eman zuten

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU// Lekeitio, Mutriku eta Ondarroako traineruak uretan egon ziren, ikuskizuna ematen. Ondarroako mutilek zazpigarren amaitu zuten Eusko Label ligan (Kontxarako sailkatu ziren), eta neskek trainerua atera zuten. Lekeitioako mutilek

ere gorengo mailan egin zuten arraun, eta pozik azaldu ziren emaitzagaz, 10. geratu ziren eta. Lekeitioako neskek ere aritu ziren estropadetan, ondarrutarren modura, Gipuzkoako ligan. Beste alde batetik, Mutrikuko arraunlariek KAE2 ligan jokatu zuten.



Uniko kantxak Elorrio gogoan hartu zuten

MARKINA-XEMEIN// Victor Bereikua *Elorrio* pilotaria omendu zuten, Unian. Elorrio aurreko urtean hil zen, eta Markina-Xemein, Berriatua, Gernika-Lumo, Zumaia, Mutriku, Bermeo, Iparralde eta Gasteizko punta-puntako pilotariak batu ziren ekitaldirako. Elorrioren senideak ere Unian izan ziren.



Lea-Artibai rallyak zortzi urte bete zituen

LEA-ARTIBAI// Lea-Artibai rallyak zortzi urte bete zituen. Erlojuz neurtutako bederatzi tarte osatu behar izan zituzten parte hartzaileek lau ibilbidetan. 62 autok eman zuten izena 2019ko hitzordurako, izen handiko pilotuak eta kopilotuak, tartean. Eskualdeko rallyzaleak ere bazeuden zerrendan.



Artibai

hagin klinika

MEDIKU-ODONTOLOGOA • INPLANTEAK

Artibai, 6 • MARKINA-XEMEIN

94 616 61 60

ALARABI

dietetika • ekodenda

Alimentazio ekologikoa
Oinetako anatomikoak
Belarrak eta Phitoterapia

KONTSULTAK

Dietista
Mediku homeopata
Masaia
Akupuntura
Tarota

94 616 74 43

Goiko Portala 1 MARKINA-XEMEIN



ANAITASUNA

Arte Zaharrin • ONDARROA



Mutrikuk 75. urteurreneko liburua kaleratu zuen

MUTRIKU// Mutrikuko Futbol Taldeak aldizkaria kaleratu zuen, 75 urte bete zituela eta. Joxe Mari Ulazia Ibarzabalek idatzi zuen, aldizkariaren egileaz gain, urteurren ekitaldien batzordekidea ere bazenak. Ulaziak, *Mutriku FT-75 urte* izenburupean, klubaren

ibilbidea jaso zuen, eta, besteak beste, jokari esanguratsuenak elkarrizketatu zituen, hamarkada bakoitzetik aukeratuta. Bide batez, taldearekin harremana izan duten hainbat lagunaren esanak ere jaso zituen, eta dokumental bat egin nahi zutela aurreratu zuten.



Kepa Arrizabalaga, munduko atezainik onenen artean

ONDARROA// Kepa Arrizabalaga atezaina Munduko Atezain Onenaren saria (Yachin Saria) jasotzeko hautagaietako bat izan zen. Saria abenduaren 2an banatu zuten, eta Alisson Becker (Liverpool) izan zen irabazlea. Arrizabalaga Erresuma Batuko Chelsea futbol taldeko atezaina da.



Inhar Urruzuno harri-jasotzailea, berriro garaile

ONDARROA// Bizkaiko lehen mailako zazpigarren txapela irabazi zuen Inhar Urruzuno ondarrutarrak. Nagusitasun osoz eskuratu zuen txapela, 8.802 kilo jasota. Urruzunok, gainera, hiru jasalditan hobetu zuen aurreko urteko marka. Onartu zuenez, ilusio berezia egin zion zazpigarren txapela jazetak.



Tximista atletismo taldea, ospakizunetan

LEKEITIO// Lekeitioko Tximista Atletismo taldeak hainbat ekitaldi antolatu zituen 30. urteurrena ospatzeko. Kirol ekimena, erakusketa eta aitorpen ekitaldia prestatu zituzten, eta, era berean, jaia ere antolatu zuten, atletismo taldearen sorrerak gogoan hartuta.

Klinika ALDAY



943 60 39 53
San Agustín, 5 behea MUTRIKU
klinikaalday@gmail.com

amoroto.eus
(Garaia - Euzkadi) - 24 orduko
94-684 25 49



**Amorotoko
Udala**

M-26 HAUTESKUNDEAK

EH Bildu nagusitu zen Lea-Artibain eta Mutriku, 8.203 boto eskuratuta

Udal eta foru hauteskundeak 2019 » EAJ izan zen bigarren alderdi bozkatuena, 7.891 botogaz; alderdi biek gora egin zuten botoetan, eta makila aldaketa egon zen bi herritan

UDAL HAUTESKUNDEAK »

Herria	EAJ	EH Bildu	PSE-EE	PP	Berdeak	Herri haut. 1	Errolda	Abst.
Amoroto	0 ()	0 ()	0 ()	0 ()	0 ()	(HK) 238 (7)	323	%26,32
Aulesti	111 (2)	279 (5)	0 ()	0 ()	0 ()	0 ()	531	%24,86
Berriatua	227 (3)	355 (6)	2 (0)	0 ()	0 ()	0 ()	865	%30,40
Etxebarria	295 (4)	226 (3)	0 ()	0 ()	0 ()	0 ()	607	%13,01
Gizaburuaga	0 ()	0 ()	0 ()	0 ()	0 ()	(IB) 80 (5)	148	%27,03
Ispaster	227 (4)	0 ()	0 ()	1 (0)	0 ()	(HA) 193 (3)	548	%20,62
Lekeitio	2.300 (7)	1.871 (6)	42 (0)	15 (0)	0 ()	0 ()	5.754	%24,60
Markina-Xemein	1.365 (6)	1.235 (5)	17 (0)	10 (0)	0 ()	0 ()	3.646	%26,80
Mendexa	157 (4)	130 (3)	0 ()	0 ()	0 ()	0 ()	358	%17,60
Munitibar	109 (3)	164 (4)	0 ()	0 ()	0 ()	0 ()	386	%27,46
Ondarroa	1.927 (6)	2.383 (7)	85 (0)	57 (0)	0 ()	0 ()	6.835	%32,55
Ziortza-Bolibar	97 (2)	164 (5)	0 ()	0 ()	0 ()	0 ()	347	%24,21
Mutriku	1.076 (5)	1.396 (7)	87 (0)	0 ()	262 (1)	0 ()	4.090	%29,02
ESKUALDEA	7.891(46)	8.203(51)	233 (0)	83 (0)	262 (1)		24.438	%27,7



Abstentzioa

%27,7

Parte-hartze handia.

Behera egin zuen parte-hartzeak. 2019ko udal hauteskundeetan %27,7ko abstentzioa egon zen (2015ean, %22,5ekoa). Abstentzio handiena Ondarroan egon zen (%33,55), eta txikiena, Etxebarrian (%13,01)

Urte berean, Espainiako Gorteetarako hitzordu bikoitza eta emaitza desberdina

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU//

Apirileko deialdian EAJ nagusitu zen; eta azaroan, oster, EH Bildu

Alde txikiagaz eta apirileko hauteskundeetan ez modura, azaroan EH Bildu izan zen alderdirik bozkatuena. 7.234 boto eskuratu zituen

EH Bilduk; eta 6.972, EAJk. Apirileko hauteskundeetan, EAJ izan zen aukeratuena: alderdi jeltzaleak koalizioak baino 185 boto gehiago eduki zituen orduan.

Herririk herri

Emaitzak herrika aztertuta, EH Bildu herri hauetan nagusitu zen: Aulesti, Gizaburuaga, Munitibar, Mutriku, Ondarroa eta Ziortza-Bolibarren. EAJ beste hauetan

izan zen lehenengo indarra: Amoroto, Berriatua, Etxebarria, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein eta Mendexan. Mendexan egon zen talde bien arteko alderik txikiena: EAJk 108 boto eskuratu zituen; EH Bilduk baino bat gehiago. Bi taldeen arteko alderik handiena Ondarroan egon zen, EH Bilduk 497 boto gehiago bereganatu zituen eta. Tarte hori, gainera, handitu egin zen (apirilean

EH Bilduk 411 botoko aldea ateratzen EAJri). Aulestin eta Gizaburuagan, datuak alderatuta, EH Bilduk EAJren botoak bikoiztu zituen. VOX eskuin muturreko alderdiari dagokionez, Espainiako estatuan hirugarren alderdirik bozkatuena izan bazen ere, Lea-Artibain eta Mutriku Elkarrerekin Podesmosentzat izan zen toki hori, 1.358 botorekin. VOXek 56 boto lortu zituen.

inguratasuna
KUSKARITZAK
proiektuak
AROLKULARITZA
eraberritzeak

688 861 883
info@argion.es
www.facebook.com/argion.es

MOTA GUZTIETAKO
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
INSTALAZIO AUTORIZATUAK

argion
elektrikariak

erlantz alkorta 664 352 892
rikardo urkizu 605 750 328

94 683 28 11
iparragirre 13-behea | ondarroa
argionelektrikariak@gmail.com

ATEUN
HARATEGIA-URDAITEGIA

etorri eta gozatu
gure baserriko okelaz
ZERBITZU PAREGABEA

Iparragirre 10 · ONDARROA
94 683 35 23 / 689 783 896

Artibai, 32 · MARKINA-XEMEIN
94 616 76 69 / 689 587 706



Josu Etxaburu, Gure Esku Dagoko bozeramaile

ONDARROA// Gure Esku Dago-ko bozeramaile berriak aukeratu zituen, Amalur Alvarez donostiarra eta Josu Etxaburu ondarrutarra. Urteetan eskualde mailako taldeetan hartutako konpromisoaren haritik tiraka zuzendaritzaren taldera iritsi zen.

Kataluniari elkartasuna erakutsi zioten

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU// Gure esku herri dinamikak deituta, elkarretaratze zaratuak egin zituzten, Kataluniako buruzagi independentistek 2017ko erreferenduma-
ren harira ezarritako zigorren aurka protestatzeko.

Arantza Zulueta espetxean sartu zuten

LEKEITIO// Akordio kolektiboarekin amaitu zen 11/13 Sumario-ko auzia. Akusatuak leporatzen zizkieten delituak onartu zituzten. Ondorioz, 47 auziperatuetatik bi joan ziren espetxera, eurretako bat, Arantza Zulueta, Zaballara; printzipioz, bost hilera-ko. Azaroan, Picassentera (Valentzia) lekualdatu zuten.



Hispanitate Egunaren aurrean mobilizatu ziren

LEKEITIO// Ikasle Abertzaleek ekimen bi antolatu zituzten, batetik, udan, Eskola ibiltaria, uztailaren 23tik 26ra, Lekeitiotik Gernikara, eta helburu honegaz: «ikasleen formakuntza edo heziketa iraultzailean eta jarrera sozialistan sakontzea». Bestetik, urriaren

12an, Hispanitate Eguna zela eta, herri eskolak prestatu zituzten, Lekeitioan. Horrela Hispanitatearena Eguna «arrotza» zela aldarrikatu nahi izan zuten. «Ikasleek artean harremanak egin eta jakintza teoriko eta politikoak eskuratu nahi ditugu», adierazi zuten.

Fran Aldorondoren hilketa gogoan

ONDARROA// 40 urte bete ziren Fran Aldarondo Badiola Ondarru Ibarako baserri baten hilketatik, eta ekintzak antolatu zituzten hilketa hura gogoa hartzeko.



Gurutze frankista eraitsi zuten

ONDARROA// Urtarrilaren 13an, hainbat ezezagunek Gurutze frankista eraitsi zuten, Arta muturrean; mailu pneumatikoak eta rotaflexa erabilita. Monumentu frankista 1938ko martxoaren 6an eraiki zuten, Balears gerraontzian zihoazen herritarrek omentzeko. Ekintza bere gain hartu zuen Ernaik.

igeltzerak, proiektuak koordinatzea, lanak zuzentzea, proiektuak 3Dn azaltzea, lanak...

ARTISANALARIAN

ARTISANALARIAN

Txanaka Txak 28, Bihara

20000 Mutriku

943 68 408 6

artisanalari@artisanalari.es

APALLU

ITURGINTZA

ITURGINTZA
BEROINTZA
GASA
AIRE EGOKITUA
ENERGIA
BERNITAGARRIAK
GONETAKO
ZAHARRENTZAK

San Agustin, 3 MUTRIKU

800 316 381 - 943 02 98 61

apallu@apallu.es / www.apallu.es



Burdinola kooperatibak 40 urte bete zituen

AMOROTO// Burdinola koope-
ratibak 40 urte bete zituela
eta, Iñigo Urkullu lehendaka-
riak bisitatu egin zuen, urta-
rrilean, Arantxa Tapia Ekono-
miaren Garapeneko Azpiegi-
tura sailburuagaz batera.
Horrela, enpresaren erronkak
ezagutu ahal izan zituzten.

Enpresa proiektu lehiaketako sariak banatu zituzten

LEA-ARTIBAI// Lea-Artibaiko
13. Enpresa Proiektu Lehiake-
tak hiru proiektu saritu zi-
tuen: Irrident (hortz protesien
laborategia), Koasta (ur jola-
sak) eta Auma (eskulanen
sare bidezko salmenta). 24
proiektu aurkeztu ziren.

Circular Seas europar proiektua abian

MARKINA-XEMEIN// Leartiker zentro teknologikoak proiektu
europar bat gidatzeari ekin zion, Circular Seas. Lau urteko
proiektua zen, eta helburu honekin sortu zen: itsasoko honda-
kin plastikoak berrerabiltzeko estrategiak bilatzea, teknologiak
ematen dituen aukerak aprobetxatuta.



Pentsiodunek mobilizaten jarraitu zuten

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU// Pentsiodunen
mobilizazioak hasi zirenetik urtea bete zen,
otsailean. Ondarroako elkarretaratzean go-
goratu zuten pentsioak %3 eta gutxieneko
soldata 900 eurora igotzea lortu zutela, bai-
na eskaerak mantendu egin behar zirela.

Urte guztian, mobilizazioak etengabeak izan
ziren. Adibidez, urriaren 1ean, Adineko Per-
tsonen Nazioarteko Egunaren harira, mani-
festazioa egin zuten, Mutrikun; eta azaroa-
ren 16an Hegoladeko hiriburuetan egin zi-
ren manifestazioetarako deia ere egin zuten.

Hildako bat eta zauritu bat, lan istripuetan


LEA-ARTIBAI// Maiatzean,
86 urteko gizon hil bat hil
zen Etxebarrian, traktore-
agaz lanean zebilela. Aza-
roan, 30 urteko gizonez-
koa zauritu zen, zuhaitz
adar batek jota, Amoroton.



Mobilizazioak kiroldegietan eta metalean

LEA-ARTIBAI// Udal kiroldegietako langileek lan uzteak egin
zituzten lan hitzarmena eskatzeko. Bizkaiko metalgintzaren
deiari erantzunez, Lea-Artibain ere mobilizazioak egin zi-
tuzten. Azaroaren 27an, baina, akordiorako oinarria lortu zu-
ten. Horrela, bertan behera utzi zuten greba deialdia.





Abarkak obra berria estreinatu zuen, Uhagonen

MARKINA-XEMEIN// Abarkak antzezlan berria estreinatu zuen, *Ortentsia izan nahi dut*, Ander Lipus zuzendari zela. «Aktore bakoitzaren desioetatik eta ametsetatik» abiatuta, istorio kolektibo bat josi zuten. Ideia Oier Guillan idazle, kazetari eta antzerkigilearen ikastaroan gorpuztu zuten.



Zubikarai beka irabazitako lana, pantailara

ONDARROA// 33 *ezkil* eleberria, XV. Augustin Zubikarai Nobela Bekaren irabazlea, pelikulara eroan zuten. Izan ere, Imanol Rayo zinemagile iruindarrak Miren Gorrotxategiren nobela hartu zuen oinarri. Zinemarako beste izen bat hartuko zuela iragarri zuen: *Hilkan-*

paiak. Rayok esan zuenez, nobelaren egitura egin zitzaion interesgarria. Era berean, historiak erakarri zuen, «baita kontatzeko era desorekatu, gorabeheratsu eta zatikatua ere». Gorrotxategiren beharra genero beltzekoa da, Royoren gustukoa.



Mikel Lertxundiren mundua barneratuz

BERRIATUA// Mikel Lertxundi artista berriatuarrak *Orekaren bila* erakusketa zabaldu zuen, urrian, Bilboko Rekalde aretoan. Erakusketak 30 urteetan artista berriatuarrak egindakoa islatzen zuen, haren «unibertso plastikoa», egindako lan guztiaren lagin bat zen eta.



Arriagaren erakusketa, lagun artekoa

MARKINA-XEMEIN// Lagun arteko giroan, Jose Pablo Arriaga artistak *Hutsean* erakusketa aurkeztu zuen, tailerrean. Egur lanketara bideratu zuen Jose Mari Arriaga aita eta artisautzan bidelagun izan zuen Henrike Arriaga anaia alboan izan zituen, hainbat senide eta lagunekin batera.

OPTIMUS
BADIOLA
B
94 684 06 71
belazahar@yahoo.es
SANTA KATALINA IBILBIDEA • LEKEITIO

BELAZAHAR
• Zure maskotarentzat behar duzun guztia
• Txakur ileapaindegia
• Albaitari kontsulta
94 684 06 71
belazahar@yahoo.es
SANTA KATALINA IBILBIDEA • LEKEITIO

LURRINDEGIA
TABAKOAK
Beristain
Barrenkale z/g MUTRIKU 943 603 544

◎ Biztanleak

31.745

■ Lea-Artibai eta Mutrikun.

Horretxenebeste biztanle daude bertan erroldatuta. Gehiago dira hil direnak jaio direnak baino: 200 lagun jaio dira, eta 260 hil.

◎ Langabetuak

1.141

■ Lea-Artibai eta Mutriku.

2019ko urrira arte, Lea-Artibai eta Mutrikuko langabetu kopurua. 2018an baino 102 gutxiago.

■ Herri handienetan.

Ondarroan, 371 langabe; Lekeitio, 266; Markina-Xemeinen, 167 eta Mutrikun, 189.

■ Langabezia, beheruntz.

2013an, 1.836 langabetu zeuden; 2014an, 1.742; 2015ean, 1.523; 2016an, 1.312; 2017an, 1.190 eta 2018an, 1.243. Ehunekotan, Ondarroan daude langabetu gehien, %9,06; eta Gizaburuagan gutxien, %2,86.

■ Joera.

2008an, langabeziak goranzko joera hartu zuen; eta 2013an, beheranzkoa. Iaz, berriro gora egin zuen langabetuen kopurua; eta aurreneko, behera.



■ HERRIZ HERRI. AZAROAREN 28RA ARTE

HERRIAK	Jaiotzak	Heriotzak	Errolda
Amoroto	3	2	416
Aulesti	9	5	652
Berriatua	14	6	1.263
Etxebarria	8	9	778
Gizaburuaga	1	2	205
Ispaster	6	9	748
Lekeitio	48	55	7.367
Markina-Xemein	33	48	5.084
Mendexa	1	1	435
Munitibar	3	8	475
Mutriku	30	29	5.330
Ondarroa	40	79	8.584
Ziortza-Bolibar	4	7	408
GUZTIRA	200	260	31.745



Lea-Artibai eta Mutriku
BIZTANLEAK
LANGABETUAK
AZAROAREN 28RA ARTE

azaro
fundazioa

Lea-Artibai eta Mutriku
BIZTANLEAK
LANGABETUAK
AZAROAREN 28RA ARTE

Lea-Artibai eta Mutriku
BIZTANLEAK
LANGABETUAK
AZAROAREN 28RA ARTE

FISHTABERNA TEATROA
ETXEABARKONTZERTUAK
RESTAURANT PINTXOAK
EETING POINT WIKI KULTUR
GUNE APOISSON MENDAK
AINA CAFE LIVE MUSIC ANT
ZERKIATERRAZA PESCA DO

BEIKOZINI

ORDU A BORDA

www.beikozini.es
TEL. 94 181 20 10

HITZAKIDE

Abstract

500

Abstract: *Chlorococcoides* sp. nov. and *Chlorococcoides* sp. nov.

Müzeleşme Kurumları

Abstract: *checkmate* has been used as a metaphor for the endgame of a chess game.

Full complete description

Full-text, controlled, peer-reviewed

HITZA

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa, betetarik, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak BERTAKO HEDABIDEAK, S.M.-ren fitxategi automatizatu batera pasatuko direla, enpresak dituen eskaintzen berri emateko. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzea. Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: BERTAKO HEDABIDEAK, S.M. - Martin Ugalde Kultur Parkea - Gudarien etorb. z/g - 20140 Andoain (Gipuzkoa) eta harpidetza@hitza.info

ERAGILEEN KONPROMISOA



2019an,
Lea-Artibai
eta Mutrikuko eragileek
Hitzari bultzada ematen jarraitu
dute. Gainera, aurren ere, entitate
hauek Hitza diruz laguntzeko konpromisoa
hartu dute: Cikautxo eta Kide enpresek, Kai-Alde
elkartek, Uhagon kultur guneak, Ipargorri elkarteak
eta Eusko Alkartasunak.

ESKERRIK ASKO gure **60** eragileei

• LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU KO •

HITZA

egiten laguntzeagatik!

ABARKA ANTZERKI TAL.
AITTITTA MAKURRA
TXARANGA
AITTITTA TXIKI
AIXEBE
AKARREGI PILOTA TAL.
AMOROTOKO
HERRIKASTETXEA
ARTELAN ELKARTEA
ARTIBAI MENDIGOI. T.
AULESTIKO URREGARAI
HERRI ESKOLA
AULESTIKO ZEMENDIA
EMAKUME TALD.

AURRERA MENDI TALD.
BATERATZE GURASO E.
BEKOBENTA GURASOAK
BERA KRUIZ IKASTOLA
BURDINOLA KOOP.
BURUMENDI MENDI T.
CIKAUTXO
EGUZKI
EKA
ETXEBARRIKO MANUELA
ZUBIZARRETA ESKOLA
FAGOR ARRASATE
GARATEA ZABALLA F.
GURE AMETSA TALDEA

IPARGORRI
ISUNTZA
KAI ALDE
KATUBALTZ TALDEA
KIDE KOOPERATIBA
KRESALA ELKARTEA
LEA-ARTIBAIKASTETX.
LEA-ARTIBAIKO AEK
LEALDE S.COOP.
LEKEITIOKO EA
LEKEITIO ESKOLA PUB.

MAKONAK ELKARTEA
MARKINA BHI INSTT.
MARKINAKO ESKU
PILOTA TALDEA
MARKINAKO ZESTA
PUNTA TALDEA
MARKINA-XEMEINGO
BERTSO ESKOLA
MUTRIKUKO BERTSO
ESKOLA
MUTRIKU BHI
NAHITA EZIN ELKARTEA
OKAMIKA
INDUSTRIALDEA


ONDARROAKO
HISTORIAZALEAK
ONDARROA BHI
LEKEITIO BHI
RADIXU IRRATIA
R. M. AZKUE IKASTOLA
SEIJO PINTURA LANAK
TALAIAPE ELKARTEA
TROLEBU
TXIMISTA ATLETISMO T.
UGARTEBURU CB
UHAGON KULTUR ELK.

URZABAL GURASO ELK.
UXU ONDARROAKO
EMAKUMEEN TALD.
WC KOMUNS
XEMEIN AISIALDI TALDEA
ZALDUPE ESKOLA PUBL.
ZUBI-ZAHAR IKASTOLA
EGUNSENTIA

**mila
milesker!**

Iker Badiola ikerlariaren taldea saritu zuten

ONDARROA //Iker Badiola zientzialariak zuzendutako ikerketa batek bi sari eskuratu zituen, Galiziako Errege Zientzia Akademiaren urteko zientzia lanik onenaren saria eta Espainiako Farmakologia Elkartearen saria; biak minbi-ziaren kontrako ikerketan egindako aurkikuntzengatik.



Arrietakua eta 'LekeitiRoute', turismo azokan


LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU //Debabarrenako eta Lea-Artibaiko ordezkariak Madrilgo Nazioarteko Turismo Azokan egon ziren eskaintza turistikoaren berri ematen. Mutriku Udalak Arrietakua Jauregia ezagutze-ko antolatzen diren bisita gidatuak aurkeztu

zituen. Lekeitioko Udalak, bere aldetik, Lekeiti-Route mugikorretarako aplikazioaren argibideak eman zituen. «Teknologia berrien aroan gaude, eta, ondorioz, turismoa egiteko eta kontsumitzeko ohiturak ere aldatu egin dira», esan zuten lekeitiarrek.



Baraizarra, zaldi probetan txapeladun

AULESTI //Muxikako Maume auzoko Baraizarrak nagusitasun osoz irabazi zuen urtarrilean Aulestin jokatu zen 2018ko Euskadiko zaldi proben txapelketa. Baraizarren zaldiak 79 plaza, 3/4 zinta eta 0,75 metroko marka egin zuen Aulestiko 950 kiloko harriagaz. Aulestiko Juan Uriarteren zaldia izan zen bigarrena.



Udalak HAPO dokumentua onartu zuen

LEKEITIO // Lekeitioko Udalak, behin-behinean, HAPO dokumentuari baietza eman zion. Plan berriak, besteak beste, lurzoru kontsumoaren arrazionalizazioa izango zuen irizpide. Etxebizitza kopurua zehaztu zuten, 309, eta haietatik %47 gizarzte-etxebizitza izango zirela adostu zuten.

ITURGINTZA
GASA
BEROGAILUAK
ZORU-BEROGAILUA
BAINUKO
ALTZARIAK
ENERGIA
BERRIZTAGARRIAK

Atea, 28 // LEKEITIO

bide•ONDO
tel./faxa: 94 624 30 33
// bide-ondo@euskalnet.net

**Carrefour
express**

Tel: 94 683 17 83
Ibaiondo, 5 - Ondarroa

**EUSKAL
GARAGARDO
NATURALA**

BOGA



Hondakin bereziak batzeko puntu mugikorra, Markina-Xemeinen.

Hondakin bereziak batzeko puntuak martxan jarri zituzten

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU// Mutrikun, puntu garbia ipini zuten; eta Lea-Artibain, puntu mugikorra abian jarri zen

Lea-Artibaiko hondakin bereziak batzeko puntu mugikorra urtarrilean hasi zen zerbitzua ematen. Ordutik, beste inora bota ezin daitezkeen hondakinak haraxe eroan ahal dituzte eskualdeko bizilagunek.

«Modu horretara, Amankomunazgoa gai izango da etxebizitza batean sortu

daitezkeen hondakin guztiak kudeatzeko», esan zuen Rakel Elu Lea-Artibai Amankomunazgoko lehen-dakariak. Urtarriletik aurrera, zerbitzua zapaturu egon da martxan, oraintxe herri batean, oraintxe bestean; eta berdin da kamioia ze herritan dagoen, eskualde guztiko bizilagunek erabil dezakete. Puntu mugikorretan, besteak beste, ondokoak laga daitezke: aerosolak, gai arrisksuen ontziak, margo eta disolbatzaileen ontziak, autoen iragazkiak, pilak, bonbilak, bateriak, tonerrak, ordenagailuak, irratiak, zartagi-

nak, fluoreszenteak, botiak, erradiografiak, CDak, bideoak, boligrafoak, errotagailuak, idazteko materialak eta plastikozko tapoiak.

Puntu garbia Mutrikun

Debabarreneko Mankomunitatearen ekimenez, hamabi puntu garbi jarri zituzten mankomunitateko zortzi udalerrietan, horietako bat, Mutrikuko Txurruka Tenienteak etorbidean. Kaleetako edokiontzietara bota ezin diren hondakinak modu zuzenean batu eta birziklatzeko aukera eman zuten.

Bizikleta sarea hobetzeko asmoa agertu zuten

LEKEITIO //Udalak bizikleta sarea hobetzeko gogoaz aldu zuen. 6,5 kilometroko sarea osatzeko plangintza prestatu zuen, lau urtean egiteko asmoagaz. Sarea bost ibilbide-tan banatu zuen. Herri barruan bizikletan ibiltzeko ohituraz jabetuta, baina segurtasun faltaz kezkatuta erabaki zuen sarea egokitu eta segurtasun neurriak hartzea. Horrenbestez, etorkizunean, txirrindulariek gune batzuetan bide bereiztuak edukiko zituztela aurreratu zuen. Beste batzuetan, oster, bizikletak oinezkoekin eta ibilgailu motordunekin batera ibiliko zirela, bizikidetzan. Hartuko zituen neurrien artean abidura murriztea zegoen. Udal txirrindulariekin eta gazteen elkartu zen, haien ikuspuntua jakin nahirik.





Berritxu

artibai bihotzean

Tel. 94 613 70 30 | Faxa 94 613 70 37

www.berriotua.org



Toxinak kanporatzeko aholkuak

ETXEBARRIA // Nerea Urien erreflexologoak hitzaldia eman zuen gorputzeko toxinak zelan kanporatu azaltzeko. ETX Kultur Elkarrekin gongoratutako adituak azaldu zuenez, elikadura txarrak, estresak eta adikzioek gorputzean toxinak eragiten dituzte, eta, ondorioz, organismo guztia gaizki joaten da. Elikadura egoki baten beharra azpimarratu zuen, eta erreflexologiak garbiketan laguntzen duela.



Kukaña berria jarri zuten Astillerun

ONDARROA // Borondatez beharrean aritu ziren hainbat lagunek 15 metro luzerako kukaña berria ipini zuten Astillerun, udaleko hainbat ordezkariaren laguntzagaz. Aurreko hilabeteen kendu zuten aurretik zegoena, egurraren egoera eskasa zela eta.



Malda egonkortzeko akordioa sinatu zuten

MUTRIKU // Samikolla azpiko malda egonkortzeko helburuz, lankidetzak hitzarmena sinatu zuten udalak eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura, Portu eta Itsas Gaietako Sailak. Bi aldeek lankidetzan aritzeko borondatea azaldu zuten, malda egonkortzeko lanen finantzaketan eta exekuzioan. Proiektuan jasotakoa 2019an gauzatuko zutela aurreratu zuen Jose Angel Lizardi Mutrikuko alkatea.



Lekitto Bedarra, baliabideak gehitzen

LEKEITIO // Lekitto Bedarrak udalaren laguntzagaz erositako-belarra mozteko tresneria erabiltzeko ikastaroa egin zuen. Ortuari hazi berriak ere landatu zituen, eta bertan egindako konpostak soroan zabaldu. Usotegi parkeko belarra «sarriago eta hobeto» mantentzeko asmoa agertu zuten.




**EGIGUREN
ERAIKUNTZAK, S.L.**
HONDALANAK || ETXEGINTZA || BERRIKUNTZAK
Loiolako Iñaki deuna kalea, 6-behea
LEKEITIO • tel./faxa: 94 684 00 10



Antiguako Ama, 5
ONDARROA •
94 683 01 29



www.erabil.es
Zulueta auzoa z/g
AMOROTO
Tel.: 94 684 40 02
Faxa: 94 684 41 47
comercial@erabil.es



INTRODUCCIÓN DE PRODUCTOS
MANTENIMIENTO DE LA
SISTEMA AUTOMATIZADO
JOSÉ LUIS GARCÍA - 946841111



San Bizente jaiek jendetza batu zuten

LEA IBARRA //Urtarrila agurtzeko aukera ekarri zuten sanbizenteek Aulestiko Narea auzora eta Munitibarrera. Batzuek eta besteek giro ederrean ospatu zituzten jaiak. Ez zen falta izan musika, jatekoa, edaria eta dantza. Aulestiko Narea auzoan, urtero

legez, umeen jolasak, zaldi dema eta karta jokoa egin zituzten. Munitibarren, bestalde, helduentzako txakolin eta sagardo dastake-ta egin zuten. Kontzertuagaz eta pilota partidekin osatu zuten sanbizenteetako eskaintza munitibartarrek.



Herriko informazioa, eskura

AULESTI //Udalak informazio oholak jarri zuen Donibane Enparantzan. Alde batean, zortzi ibilbideren gaineko informazioa jaso zuten, mapa banagaz, eta bestean, herriko mapa eta garraio publikoen ordutegiak.



Desfibriladorea ipini zuten

GIZABURUAGA //Udalak desfibriladorea jarri zuen medikuaren kontsultategiaren kanpoko aldean, herritarrek premia zeukatenean erabiltzeko; eta ikastaroa eman, zelan funtzionatzen zuen azaltzeko.



Herritarren arreta zerbitzu berria martxan jarri zuten

MARKINA-XEMEIN //Udala herritarrei zuzendutako zerbitzu berria eskaintzen hasi zen. Herritarren Arreta Zerbitzuak (HAZ) Markina-Xemeingo bizilagunen eta udalaren arteko harremanetarako erreferentziatzeko puntua izatea zuen helburu, udalagaz lotutako tramiteak gauzatzeko, dokumentazioa aurkezteko eta informazioa jasotzeko. HAZ bulegoa udaletxeko beheko solairuan kokatu zuten, eta ordutik, herritarrek bertan egin ahal dituzte udalagaz lotutako tramiteak eta kontsultak, besteak beste, biztanleen errolda; lizentzia, baimen eta obra eskaerak; tasa eta zerga ordainketak; hitzordu eskaerak; eta udal materialaren eta instalazioen erreserba.

LEA-ARTIBAI eta MUTRIKUN

KALITATEZKO
Euskal
Irakaskuntza
Publikoa



Leizorako
Eskola




Arretarako
Eskola



Munitibarren
Eskola



Markina-Xemein
Eskola



Narea
Eskola



Munitibarren
Eskola



Leizorako
Eskola

Unescok kalifikazio handiena eman zion Geoparkeari

MUTRIKU //Euskal Kostaldeko Geoparkeak Unescoren Munduko Geoparke izendapenari eutsi zion. Geoparkeko arduradunek esan zuten, azterketa «kalifikazio handienarekin» gaingitu zuten. Unescoren txostenean ez zuten inolako neurri zuzentzailerik identifikatu.



Zuhaitz eta landare azoka jendetsua izan zen

MARKINA-XEMEIN //Aspaldiko partez, Plaza-barriean barik, zelaian egin zuten 17. Zuhaitz, Landare eta Baserri Tresneria Azoka, otsaileko bigarren zapatuan. Goizetik eguerdira, ehunka lagunek bisitatu zuten azoka, eguraldi bikainak lagunduta. Aurre-

ko urtean baino jende gehiago batu zen azoka eremuan, eta erosleek lau orduz postutik postura ibiltzeko aukera eduki zuten. Asko dira Markina-Xemeingo hitzordura hutsik egiten ez dutenak, eta 2019an ere bat baino gehiago eskuak beteta bueltatu zen etxera.



Radixu irratiak 28. urteurrena ospatu zuen

ONDARROA //Radixu irrati libreak 48 orduko irratsaio berezia eskaini zuen, 28. urteurreneko ospakizunen barruan. Irratia osatzen duen lan taldeak gogotsu ekin zion kanpandorretik etenik gabe emititzeko zereginari. Entzuleek lehengo eta oraingo saioak entzuteko aukera eduki zuten.



6.200 kilo janari bidali zuten Saharara

LEA-ARTIBAI //Sahela elkartek 6.200 kilo jateko batu zuen Saharako Daglako eskolara bidaltzeko, gehienbat gosarirako elikagaiak. Lekeition, Ispasterren eta Markina-Xemeinen egin zuen bilketa, eta, jatekoagaz batera, ume jaio berrientzako sei kulunkari ere bidali zituen.

lorakesther
94-683 99 60
www.lorakesther.com
Auzolanean, 24 ONDARROA

LEA-ARTIBAI
FUNDATZIOA
Lekeition, 11
48940
94-683 99 60
94-683 99 60

www.fideslan.com

Fideslan
Magari
kontakortu eta
abokatuak

Lekeition, 11
ONDARROA - Tel: 94-683 99 60
DAGLAKO - Tel: 94-683 99 60
Bilakaia, 11



Resurreccion Maria Azkue, ezkerrean eserita, Gernikako Arbolaren aurrean, 1887ko uztailaren 25ean.

Euskaltzaindiak denen eskura jarri zituen Azkueren lanak

LEKEITIO //

Resurreccion Maria Azkueren ekoizpena katalogatu eta digitalizatu zuten

Resurreccion Maria Azkue lekeitiarrak (1864-1951) 64 urtean argitaratutako lanak euskal erabiltzaileen esku jarri zituen Euskaltzaindiak. Hain zuzen ere, 922 idazlan katalogatu eta ditigalizatu zituen, Jakin Fundazioagaz elkarlanean.

Bizkaiko Foru Aldundia-
ren laguntza eduki zuen

Euskaltzaindiak beharra aurrera atera ahal izateko. Lehenengo euskaltzainburuaren lan argitaratuak katalogatu eta digitalizatu egin zituzten, eta, era berean, Euskaltzaindiaren webgunean kontsultatzeko aukera zabaltu zuten. Azkueren ekoizpen intelektual eta kulturala, ahozkoa zein idatzizkoa, edozein pertsona eta belaunaldiren esku geratzen zela nabarmendu zuten.

922 idazlan


Resurreccion Maria Azkuek bizi zen artean argitaratu zituen 922 idazlanak

hamar multzotan sailkatu zituzten: 32 liburu adierazgarri eta bestelako 54; 23 liburuxka; 27 liburu zati; 742 artikulua; hamar itzulpen; bost idazlan, editore, zuzendari eta biltzaile modura; zortzi berrargitalpen; hamabi egokitzapen eta itzulpen; eta argitaratutako bederatzi gutuneria. Azpimarratu zuten, ez zen beti erraza izan Azkueren egiletza identifikatzea, sarri ezizenak erabiltzen zituen eta.

Egitasmoagaz lehenengo euskaltzainburuaren izena eta izana gogorazi nahi izan zituzten.

Eskola proiektua 2019-2023 planean sartu zuten


ETXEBARRIA // Eusko Jaurlaritzak 2019-2023 ekintza planean sartu zuen Etxebarriko eskola berria. Frontoiaren ostean eraikinarentzako lekua gordeta zeukan Etxebarriko eskolak. Otsailean jaso zuten albiste, Ana Serri Bizkaiko Hezkuntza ordezkarria eta Jon Zuazo Hezkuntza Saileko baliabideen arduradunak egin zien bisita. «Espero gabeko berri pozgarria izan da. Lan asko aurretik eginda eduki dugu, eta eskola eraikitzeko gugaz hartuta zeukaten konpromisoa aurreratu egin dute», adierazi zuen Etxebarriko alkate Jesus Iriondok. Eskolak urteak zeramatzan eraikin berri bat eskatzen, eta lehen onespina jasota, aurrean guztiak egiten saiatu ziren, proiektua lehenbailehen egin ahal izateko.





Errenteriako zubia, segurtasunagatik itxita

ONDARROA //Segurtasunagatik, Errenteria auzoko zubia itxita egon zen ibilgailuentzat. Egoera txarrean zegoela ziurtatu ostean, zirkulazioarentzat zarratzea erabaki zuen udalak, igarotzen zirenen segurtasuna bermatzeko. Sarreretan harriak jarri zituzten, ibilgailuak igaro ez zitezen. Zubiaren egitura kaltetuta zegoela ziurtatu zuten: behegaineko hormigoia hautsita eta erdiko habeko azpialdeko egitura metalikoa zatika erortzen.




Eguraldi txarrak kalteak eragin zituen

MUTRIKU //Otsailaren lehen asteburuan, eguraldi txararen eraginez, Mutrikuko Galbaixoko GI-3230 errepidea itxi egin behar izan zuten, pitzadurak zeuden lekuan lurak behera egin zuen eta. Lekeition, haizeak Santi Brouard frontoiko teilatuaren zati bat eta San Juan Talako baselizako teilak eroan zituen.



Zapolako lubakietara bisitan joan ziren

ETXEBARRIA //Txitxiburduntzi ospatu eta Zapolako lubaki eta metrailadore habiak bisitatu zituzten etxebarritarrek, Ahaztuen Oroimena elkartearen laguntzagaz. Etxebarriko Guraso Elkartek txitxiburduntzi antolatu zuen Santa Eufemin, eta bidean, 36ko gerrako lubakietan zehar ibilbidea egiteaz gain, metrailadore habietan sartu, eta bertatik bertara ikusi ahal izan zituzten ume, gazte eta helduek.



Araztegiko lanak amaitu zituzten

AULESTI //Araztegiko lanak amaitu zituzten, ur zikinei tratamendu biologiko egokia eman eta Lea errekaru ur garbia helitzea ahalbideratuko zuen azpiegitura. Martxora arte, aprobak egiteko asmoa zeukaten. Araztegiak, Solaguren auzoan kokatua, 700 biztanleren ur zikinak hartzeko gaitasuna zeukan.



GAIMAZ S.L.

www.gaimaz.com



AENOR
Empresa
Registrada
ES-45792003



AENOR
Gestión
Ambiental
GA-00030130



AENOR
Seguridad
Social
ES-01487

Bekobenta 21. Pabellón URLO
48270 Markina-Xemein
T. 94 616 74 36 / F. 94 616 76 11
gaimaz@grupogaimaz.com

BOKATAK DAGOZ



ABERTZALEEN TOPALEKUA

94 634 29 25
606 719 043

BOKATAK DAGOZ



ABERTZALEEN TOPALEKUA

HERRIKOA LEKEITIO



Euskal Eskola Publiko komunitarioa ardatz hartuta

LEA-ARTIBAI //LAB sindikatuak «publikotasun eredu berri bat» aldarrikatu zuen hezkuntzarako, beti ere Euskal Eskola Publiko komunitarioa ardatz hartuta. «Adostasuna bilatzen dugu, Euskal Herriak behar duen hezkuntza sistema definitzeko adostasuna.

Nahi dugun eredu berri horren ezaugarriak ondokoak dira: herritarra, autogestionatua eta osorik diru publikoz finantzatutakoa, euskara hizkuntza nagusi duena, feminista, pedagogikoki berritzailea, deszentralizatua eta integratzailea», esan zuten.




Bizenta Mogel izeneko parkea

MARKINA-XEMEIN //Bizenta Mogel izena jarri zaitoen Markina-Xemeingo udaletxe osteko parkeari, euskaraz idatzi zuen eta bere izenez sinatzera ausartu zen lehenengo emakumearen izena.



Kantuan jatekoa lortzeko

MENDEXA //Santa Ageda koplak abesten baitutako dirua Lekeitioko Dominikei eta Elikagaien Bankuari eman zioten. Diru laguntza pozik hartu zuen Marisol Iturraspe Lekeitioko Elikagaien Bankuko arduradunak.



Armintxeneko grabatuak arriskuan daudela esan zuten

LEKEITIO //ADES espeleologia taldeko kideek esan zuten Armintxeneko kobako grabatuak arriskuak jarraitu egiten zuela. Espeleologia taldekoek esan zuten hasierako azterketetan argi ikusi zela kobak noizbehinkako uholdeak jasaten zituela eta behe aldeko grabatuak sarri urpean geratzen zirela. Armintxera sartzen zen ura Larrotegiko ur zulotik zetorrela esan zuten. Ura nora doan jakin behar zela esan zuten, uholdeak zergatik gertatzen ziren jakiteko. «Aldundiak uste du Garrantakako errekan kanal bat egitea eta ura desbideratzea dela irtenbidea», kritikatu zuten. Kobako uholdeentzat irtenbidea aurkitzea «presazkoa» zela nabarmendu zuten.



Arropaingo obren emaitzak ikuskatu zituzten

LEA-ARTIBAI//Diputazioko ordezkariak, Garbiñe Saenz de Buruaga Ispasterko alkatea eta Koldo Goitia Lekeitioko alkatea Arropainen batu ziren, BI-2405 errepidean egiten ari ziren lanen emaitza ikusteko. Oinezkoen segurtasuna bermatzeko egin ziren lanak ikuskatu zituzten.



Birziklapen tasarik altuena lortu zuen eskualdea

LEA-ARTIBAI//2018an Lea-Artibai izan zen Bizkai mailan birziklapen daturik onena lortu zuen eskualdea,%43ko birziklapen tasagaz. 2019ko martxoan eman zituzten jakitera datuok. Gogoratu zutenez, Lea-Artibain, 2018an hasi ziren organikoa bereiztuta jaso-

tzen. Espero zuten modura, sortutako errefus kopurua jaitsi egin zen, eta gainerako gaiak igo. 2017ko eta 2018ko emaitzak alderatu zituzten datuak «onak» izan zirela ondorioztatzeko. Urte batetik bestera, 1.133.280 kilo errefus gutxiago jaso zituzten.



Gaztelekuaren aldeko agiria sinatu zuten

MARKINA-XEMEIN//Guraso elkarteek, Xemein Astialdi Taldeak, udalak eta talde politikoek Gaztelekuaren proiektuarenganako konpromisoa agertu zuten, dokumentu bateratua sinatuta. 12tik 16 urtera arteko gazteen artean, aisialdiaren esparruan, hutsunea antzeman zuten, eta, hortik, emandako berba.



500. urteurrena ospatzen hasi ziren

ISPASTER//Ispasterrek udalerriaren 500. urteurrena gogoratu eta ospatzeko ekitaldia egin zuten; lehenengoa. Besteak beste, hainbat belaunaldi elkartu zituen ekitaldian, Gernikako Arbolaren kimu bat landatu zuten. Bide batez, esan zuten sorreraren data zehatza jakin nahirik zebiltzala.

GALDONA
JATETXEA
KANPINA
MUTRIKU

Jaietan
toki lasaia
nahi badozu... Zatoz Galdonara!

943 60 35 09

GOITIKO
JATETXEA
KAFETEGIA

Foru Enparantza, z/g • LEKEITIO
94 684 31 03

Gizaburuagako
udala

Tel./Faxa _ 94 684 25 86

Eleizalde 2 • 48289 Gizaburuaga



Hamen bertokoa markaren aurkezpen ekitaldia.

Hamen bertokoa sortu zen, lehen sektorea bultzatu nahian

LEA-ARTIBAI //
Kontsumitzaile,
ekoizle eta
administrazioen
arteko elkarlana
bilatu zuten

Maiatzean, Hamen Bertokoa marka ezagutzera eman zuten, Lea-Artibai eskualdeko elikagaien ekoizpena eta kontsumoa sustatzeko asmoz martxan jarri zuten proiektua.

Aurkezpenean azaldu zutenez, elkarlanerako proiektu bat zen, merkatu-ratze kanal laburrak erabili- ta Lea-Artibain ekoiztu


edo eta transformatutako elikagaiak ekoiztu, saldu eta kontsumitzea bilatzen zuena.

Bide luze baten emaitza
Proiektua bide luze baten emaitza zela esan zuen Jon Arriola Berriatuko alkate eta Lea-Artibai Garapen Agentziako ordezkariak. «Bide honek begirada 2027. urtean jarrita dauka», adierazi zuen. Aurkezpen ekitaldian, Arriolagaz batera, Josu Ogiza Lea-Artibaiko Landa Garapen Elkarteko lehendakariak ere parte hartu zuen. Proiektuaren helburua honako hau zela esan zuen: lehen sektorea

eta Lea-Artibaiko bizilagunen bizi kalitatea indartzea. Asmoa elkarlanaren bidez lortuko zutela esan zuen, hain zuzen ere, kontsumitzaile, ekoizle eta administrazio publikoen arteko elkarlanaren bidez. Beste alde batetik, 2016tik, Lea-Artibai eskualdean elikagai osasuntsuaren inguruko praktika onak ugari direla aitatu zuen. Horrenbestez, Ogizak proiektuaren parte izatera animatu zituen ekoizleak eta herritarrak, eta, bide batez, lehenengo sektorea, dendak eta jatetxeak bizirik eta sendo mantentzeko beharra egitera.

200 txirrindularitik gora batu ziren V. BTT lasterketan

GIZABURUAGA //Martxoaren 31n jokatu zuten Gizaburuagako V. BTT lasterketa, Gizaburuagako Udalak eta Lekei-tialde Txirrindulari Elkartek elkarlanean federatuei begira antolatutako ekimena. Proba udaletxeko atzeko zelai inguruetan jokatu zen, eta pozik agertu zen izan zuen arrakas-tagaz. «Inoizkorik jende gehien batu da aurten. Iragarri modura, eguraldi oso ona egin du, eta zirkuitu inguruak parte hartzaileak animatzera etorri diren zaleekin bete dira. Parte hartzaileak eta proba ikustera etorri direnak gustura geratu dira, eta horrek ere asko poztu gaitu», adierazi zuten antolatzailleek. Ibilbide bi prestatu zituzten, bata 600 metrokoa, txikientzat, eta bestea 1.200 metrokoa, nagusiagoentzat eta zailduagoentzat.





Uribarren Abaroa Fundazioa, ospakizunetan

LEKEITIO // Uribarren Abaroa Fundazioak 150 urte bete zituen, eta, urteurrena ospatzeko, besteak beste, I. Pintura Lehiaketa jarri zuten abian. Uribarren Abaroa Fundazioa 1869. urtean sortu zen, Pascual Abaroak sortutako Abaroa ospitaleak eta Jose Javier Uribarrenek sortutako San Joseko Uribarren umezurtegiak bat egin ostean. 1978an egoitza bihurtu zen, eta 2007. urtean eguneko zentroa jarri zuten martxan.



Xisterako bazkideek batzarra egin zuten

MUTRIKU//Xisterak Mutrikun egin zuen urteko batzar orokorra. Bazkideek berrikuntzen berri eman zuten. Esan zutenez, gizonetzkoetan lehen, bigarren eta hirugarren mailak ezartzekoak ziren, eta gizonetzkoetan kadeteak ere jokatzekoak ziren. Bestalde, emakumeen zirkuitu berezia ere antolatzekeak ziren.



San Andres eraikinak berrizteko hobariak

LEKEITIO//Lekeitioko Udalak hobariak ezartzea erabaki zuen: %60koa, Eremu Degradatuan dauden eraikinen aurrealdeak birgaitzeko obren zergari; eta %90ekoa, irisgarritasuna hobetzeko obren gaineko zergari. Hobaria ez zen bakarrik alde zaharreko eraikinentzat, ordura arte modura. Aldaketa horren eraginez, udalak San Andres auzoko bizilagunei ere hobariok jasotzeko aukera zabaldu zien.



Mozolomendiren aldeko agerraldia

LEKEITIO // Martxoaren 23an, ehun lekeitiar inguru batu ziren udaletxeko eskaileretan, Mozolomendiko hiru etxebizitza okupatuen proiektua babesteko eta Lekeitioko Udalari eskaera zuzena bideratzeko. «Mozolomendiko hiru etxebizitzak herritarren esku mantentzea ezinbestekoa da», esan zuten.

GOLKEMI
DISTRIBUTION LAUNDRY

golkemi@gmail.com

630 273 414
615 750 960

Mutrie

[illegible]



Martxoaren 8an berdintasuna aldarrikatu zuten

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Martxoaren 8a, beste behin, aldarrikapen eguna izan zen, eta Lea-Artibai eta Mutrikuko milaka emakumek greba feministaren deialdiagaz bat egin zuten. *Bizitzak erdigunera* lelopean, herriguneak bete zituzten. Goizean, hainbat

herritan manifestazioak egin zituzten, eta arratsaldean, Lea-Artibai mailan egindako deiari erantzunda, Markina-Xemeinen batu ziren. Ehunka lagunek kaleak hartu zituzten, eta mundu mailako greba izan zela gogorarazi zuten.



Emakumeen lana, ikusgai

LEKEITIO // Inguruko emakume sortzaile eta ekintzaileen hirugarren azokan, moda eta osagarriak, okintza eta gozogintza eta larruzko produktuak, moda diseinuak eta koardroak erakutsi zituzten, besteak beste.



Musikariak bat eginda

ONDARROA // Ondarroa, Mutriku, Berriatua, Markina-Xemein eta Lekeitioko musika eskoletako 500 bat musikari batu ziren, Ondarroan. Musikfest izenagaz aurkeztu zuten lehenengo bider antolatu zuten ekimena.



'Irakurri, gozatu eta oparitu' kanpaina martxan jarri zuten

LEA-ARTIBAI // *Irakurri, gozatu eta oparitu* kanpaina martxan jarri zuten, Euskal Herriko 34 herritan, haien artean, Ondarroan eta Lekeition. Horrela ba, beste behin, euskarazko liburuaren irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz sortutako ekimenagaz bat egin zuten Euskaltzaleen Topaguneak, tokian tokiko euskaltzaleen elkarteek, udalek, liburutegiek eta liburu dendek. Parte hartzea saritu zuten, eta euskarazko liburuak erosteko abantaila ekonomikoak emanaz, ondarrutarrak eta lekeitiarrak euskarazko liburuaren bat oparitzera gonbidatu zituzten. Ondarroako edo Lekeitioko liburutegietan liburu bat maileguan hartzea zen lehenengo pausoa.

IBETARRI

IB

ERAKUNTZAK ETA HARREMANAK S.L.

BONITATIAK
GONBIDAK
TUOZAK
[TOKIETAN HERRIAN
KUTXAK
MONTATZEA,
[BONITATIAK HERRIAN
BONITATIAK]

687 795 736

www.bonitatia.com

Etxean
egindako
opilak

HAIZEA
KAFETEGIA

Paskual Abaroa 22 behea, 48280 LEKEITIO

Itxas
Lau
tallerria

Itxas Lau
tallerria

Egiteko Hala, z/g. Madoles pabiloia
14 postokubia ONDARROA


Tel.: 94 683 18 51
faxa: 94 683 18 76

www.itxaslautallerria.com

Zuhaitzak ardura barik moztu zituztela salatu zuten

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU

//Eguzki talde ekologistak salatu zuenez, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek «ardura barik» moztu zituzten errepide hegaletako zuhaitzak. Dozenaka urte zituzten arbolak moztu zituzten, pinuen, eukaliptoen, arteen edo haritzen artean bereiztu gabe.



Hemezortzi rock talde batu ziren elizpean

ETXEBARRIA// Hemezortzi rock talde batu ziren Etxebarriko Elizpe Rock jaialdiko agertokietan, lehenengo urtean beste; batzuk eskarmentu handikoak eta beste batzuk agertokira lehendabiziko bider igotzen zirenak; denak, Lea-Artibaikoak. 11:30ean hasi eta

01:30era bitartean, hainbat estiloz gozatze-ko aukera eman zitzaion entzuleei, besteak beste, rock, pop, metal eta new age. Goizez, bakarlariak aritu ziren tabernetan; eta arratsaldean, taldeak, elizapean. Horregaz batera, bertsolarien saioak ere eskaini zituzten.



Zaldirik bizkorrenak lehiatu ziren

MENDEXA//Odol garbien modalitatean, Ander Irurotagoiena Urnietako zaldizkoa eta *Euxebio* zaldia izan ziren nagusi Mendexako zaldi lasterketan. Gipuzkoarrak hirugarren bider jarraian irabazi zuen. Gurutzatuen modalitatean, Kantabriako Jose Ramon Garma eta *Rocinonte* zaldiarentzat izan zen saria.



900 lagunetik gora batu ziren Boga-l-n

ONDARROA// Apirilaren 28an, eguraldi onak lagunduta, 909 mendigoizalek egin zuten Boga! mendi martxa, Ondarroako Aurrera Mendi Taldeak eta Zubi Zahar herri ikastolak elkar-lanean antolatutako ekimena. Adin guztietako mendizaleek inguruko paisaiez gozatzeko aukera eduki zuten.

INOXHEA
IRRI ALTZARIAK

inoxheal@inoxhea.com www.inoxhea.com

INOXKOABLEAK eta burdin lanak

Tel. 94 634 35 40 | Mox. 800 77 91 91
C/Alfonso XIII, 14 | 48001 | 48001 | 48001 | 48001

IRIGOIEN OPTIKA

OPTIKO-OPTOMETRISTA
AUDIOPROTESISTA

Zumatzeta, 1 - LEKEITIO 48280
T./Faxa: 94 684 31 72
irigoienoptika@telefonica.net

SOFTVIRJEL



Artedramak emakumeen lana ikusgarriago egin zuen

AULESTI //
Aulesti hamaika
sortzaileren plaza
bilakatu zen,
Artedramaren
eskutik

XIV. Artedrama topaketak emakumeen lana oinarri hartu zuen, Aulestin, Pazko Astean. Beste behin, Aulesti arte eszenikoen erakusleiko zabala bilakatu zen.

Emakumeak izan zituzten ardatz 2019ko hitzorduan: emakumeen lana oholtza zein sortze prozesuetan. Era berean, tailerren ardu-

ra ere emakumezkoek eduki zuten. Ohi legea, eztabaidaren eta hausnarketaren ondorioz egindako eskaintza ekarri zuten, lasone Parada Artedrama Arte Eszenikoen plataformako kideak azaldu zuten.

Zirkuitutik kanpokoak
Sortzaileen artean zein oholtzan emakumeen presentzia azpimarratzeaz gain, ikuskizun orekatuak prestatzen ahalegintzen direla esan zuen Paredesek, hau da, asko ikusi ez diren antzezlanak.

Tailerrean, asko jota, ha-
malau pertsonak eman ahal

dute izena, eta urtero-urtero harrera on-ona edukitzen dute. «Ezusteko handia hartu dugu aurten. Lehen hamar egunetan, 20 bat eskaera eduki genituen. Behin baino gehiagotan egondakoei beste batzuei lekua uzteko eskatu behar izan zieten. «Jende berria datorrela eta horrelako proiektu batek interesa sortzen duela jakitea albiste pozgarria da», adierazi zuten.

«Gailur batzuetara iristen gaude; ezin dugu ikasle gehiago hartu, eta ez daukagu espaziorik jende askoz gehiago hartzeko ere», zehaztu zuen Paradak.

Saltoki txikiak babesteko neurriak hartu zituzten

MARKINA-XEMEIN //«Merkataritza txikiak bizi duen egoera kezkarriaren aurrean eta saltoki txikiek herriari egiten dioten ekarpena balioan jarri nahian», merkataritza txikia babesteko hainbat urrats ematea erabaki zuen Markina-Xemeingo Udalak. Udalaren laguntzak jasotzen zituzten taldeei eta elkartei ekin tzak antolatzeko materialak «ahal den neurrian» herriko saltoki txikietan erostea eskatu zien; Hemen be bai merkata ri elkartearen dinamizazio lana ordaindu egingo zutela aurreratu zuten; eta turismoari zuzendutako web gunea herriko merkata ri txikien erakusleiho erakargarria izatea lortu nahi zutela adierazi zuten, herriko orogarrien eskaintzarentzako aparteko txokoa prestatuta.





INTERSPORT KIBEL INTXIDULAK

- 16 urtekoak eta gazteak
- Baserri, talde, kirol taldeak, kirol taldeak
- Kirol taldeak
- Kirol taldeak kirol taldeak eta kirol taldeak
- Jaiak, kirolak, kirolak...
- Kirolak, kirolak, kirolak, kirolak...
- Kirolak
- Kirolak
- Kirolak
- Kirolak

GALDETU KONPRONISOARIK GABE!



INTERSPORT

GERMINA
Unibertsitatea 4, 946255516

ONDARROA
Auzoak 17, 946330005

BERMEO
Kirolak 18, 946333494

ADIBIDEAK KONPRONISOARIK GABE!
Kirolak 18, 946333494



Imanol Oruemazagari esker ona agertu zioten

ONDARROA //Apirilaren 6an, Imanol Oruemazaga Baseta zenari esker oneko omenaldi musikala eskaini zioten Andra Mari elizan. Ekitaldia Kantaize abesbatzak eta Ondarroako Udalak antolatu zuten elkarlanean, «Oruemazagak herriaren alde egindako lana goraipatzeko», eta Unanue Kamara Korala, Eskolaniako tipleak, Olatu kanta abesbatza, Ondarroako Metal Taldea eta Mikel Ansola organo eta piano jolea parte hartzaile zirelarik.



Artekubuk 1.178 sinadura erregistratu zituen

ONDARROA //Artekubu egitasmoaren bultzatzaileek HAPON arte eszenikoentzako gune bat sortzeko eskaera aurkeztu zuten udal erregistro orokorrean. Arte eszenikoentzat leku «duina» eskatu zuten, eta proposamena babesten zuten 1.178 herritarren atxikimenduak aurkeztu zituzten, manifestu batez.



Oizera igo ziren 54. ibilaldi neurtuan

MARKINA-XEMEIN //Markina-Xemeingo Artibai Mendigoizale Taldeak 54. ibilaldi neurtua antolatu zuen. Bi ibilbide egon ziren aukeran, bakoitzaren arabera aukeratzeko modukoak: ibilbide luzea, 28 kilometrokoa (gutxi gorabehera sei ordu eta erdian egitekoa) eta ibilbide motza, 14 kilometrokoa (hiru ordu eta erdian egin daitekeena). Batzuek eta besteek Oiz-Mendibil parterantz jo zuten.



Egun beteko jaia Udabirra Fest jaiagaz

AMOROTO //Amorotoko Udabirra Fest jaiak, beste behin, garagardo festa baino askoz gehiago zela erakutsi zuen. Herrian batutakoek hainbat garagardo marka, txerri okela eta saltxitxekin egindako platera izan zituzten eskura, eta, horrez gain, goi mailako pala-txapelketaz gozatu ahal izan zuten.

ITSAS LUR JATETXEA

Artea eta kultura gaitzazkoak
Entsaladak berezikiak
Enpresako txakariak
DINAKOTIAK
Edukierak eta gaitzazkoak

Tel: 690 640 677 / 94-6167809
San Agustin Deula, 4 (Ondarroa-Korrika)

solariuma

**Dermatologikoki testatua
AZALAREN
ARAZOENTZAKO:**

NUBEA %100 begetala

PUREST %100 organikoa

josune

ileapaindegia

94 603 61 17
artabide 17 ondarroa
martitzenetik barikura: 9:00-13:00/15:00-19:00
zapatuetan: 8:00-14:00



Berdel Eguna moilara bueltatu zen, arrakastaz

MUTRIKU //Aurreko urtean eguraldiak lekuz aldatzera behartu ondoren, 2019an berriro ere moilara buletatu zen pintxo dastaketa herrikoia.Urtero modura, hitzordura hutsik egin ez zuten ehunka lagunek parte hartu zuten. Berdelak eskaintzen dituen gastro-

nomia aukera zabalaz gozatzeko aukera eduki zuten moilara joandakoek, boluntarioek eta sukaldariek mimo handiz egindako lanari esker. Guztira, 40.000 pintxo prestatu zituzten esku trebatuek Berdel Egunaren 24. urtean.



Saturraranen kamerak jarri ziren

MUTRIKU // Gipuzkoako Foru Aldundiak kamerak jarri zituen Katein, Saturraranera doan jende kopurua, hondartzaren azalera egon daitezkeen aldaketak eta ur mugimenduak eta korronteak neurtzeko.



Tapoiak, beste bide batetik

LEKEITIO // Gorosti Txopitea lekeitiarrak 2000. urtean hainbat proiektu laguntzeko hasitako bidea amaitutzat jo zuen, tapoiak bideratzeko proiekturik ez zegoelako eta Amankomunazgoak bilketari ekin ziolako.




Karmele Mitxelenak irabazi zuen Peru Abarka Lehiaketa

MARKINA-XEMEIN //Karmeel Mitxelena Etxebesteren *Era-kusleihoan* lanak eraman zuen 2019ko Peru Abarka Lehiaketaren narrazio onenaren saria. «Hitz eta pasarte dotoreekin» irakurlea harrapatzen zuela azaldu zuen Iñaki Aldekoak (Erein), Mari Eli Ituarte (Markina-Xemeingo Udala) eta Patxi Zubizarretak osatutako epaimahaiak. Epaimahaikideek jakinarazi zuten, egileak harreman latz eta hotza kontatzen zuen narrazioan, baina irakurlea harrapatu eta bereganatzea lortzen zuen. Narrazio irabazlea aukeratu zen momentuan, ilustrazioaren atala zabaldu zuten. Peru Abarkaren blogean jarri zuten ilustratu beharreko narrazio zatia.

[illegible]

Ura kutsatzeko arriskuaz ohartarazi zuten

LEA-ARTIBAI //EH Bilduk kezka agertu zuen Bizkaiko Foru Aldundiak egin behar zituen proba pilotuen eraginez urak kutsatu zitezkeela eta. Esan zuenez, aldundia pinuen gai-xotasunaren aurkako proba egitekotan zen, helikopteroz, Bellastegi inguruan, Amortoko lurretan.



Ibilaldiaren inbertsioa estaltzeko laguntza eske

LEKEITIO //Eguraldi txarrak eragin nabarmena eduki zuen maiatzaren 19an ospatu zen Ibilaldian. Euria tarteko, espero zutena baino jende gutxiago batu zen Lekeitiora, eta Azkue ikastolak gutxiengo historikoa esku-ratu zuen. Euskal komunitateari laguntza

eskatu zioten, zorra estaltzeko. Erantzuna «berehalakoa eta erraldoia» izan zen. Horrela, jasotako elkartasunagaz eta Ibilaldi egunaren aurretik egindako lanagaz, inbertsioa estali eta aurreikusitako proiekturen bat egiteko beste diru lortu zuten.




Hiru urteren ostean, Kamiñalde zabaldu zuten

ONDARROA //2016ko martxotik itxita egon ostean, Ondarroako Kamiñaldeko bidea oinezkoentzat eta ibilgailuentzat zabaldu zuten. Udala osatzen zuten talde politiko biek elkarregaz ireki zuten bidea, maiatzaren 24an. «Ondarroako historia hurbileko gertakariarik latzena» amaitutza eman zuten.



Txikienek egun handia ospatu zuten

LEA IBARRA //2019ko Umeen Eguna Lea Ibarren egin zuten. Arratsalde pasa ederra egiteko hamaika jarduera eduki zituzten aukeran, besteak beste, jolas puzgarriak, aurpegia margotzeko txokoa, zankoen tailerra, just dance saioa eta txiki-kientzako ludoteka. Jaia txokolatadagaz amaitu zuten.





Herri lagunkoia proiektuaren diseinuan parte hartu zutenetako batzuk.

Herri lagunkoia proiektuaren Ekintza Plana martxan jarri zuten

LEA IBARRA //

Hamairu ekintza adostu zituzten hobetu beharreko hogeitakortzeki erantzuteko

Lea Ibarreko Herri Lagunkoia proiektuaren diagnostikoa egin ostean, Ekintza Plana martxan jarri zuten Lea Ibarra Udal Mankomunazgoan. Hamahiru ekintza adostu zituzten, hobetu beharreko praktikei erantzuteko.

2017an egindako ebaluazioan lortutako emaitzetatik abiatu ziren konponbi-

deak eskaintzeko. «Edade-tuak ahalduntzea da gure helburua, interesatzen zaiena zer den eta beharrak zeintzuk diren kontuan izanda», adierazi zuen Arritxu Zelaia proiektuaren aholkulari, teknikari eta dinamizatzaileak.

Emandako pausoak

Lea Ibarra Udal Mankomunazgoari zegozkien ekintza orokorrak zaintzaileei, garraio mugikortasunari eta farmaziei lotutakoak ziren. Martxan jarri zuten neurrietako bat zera izan zen: Adineko pertsonen zaintza eskubideaz jabetzeko sensibilizazio kanpaina egi-

tea. Behar horri erantzunez, aurreratu zutenez, laguntza aukerei buruzko informazioa zabaltzeko materiala prestatu, diseinatu eta banatzeko asmoa zeukaten. Garraioari dagokionez, mankomunazgoaren arabera, badaude zenbait arazo, hala nola, auzoetatik herrietara jaisteko garraio publikoaren zerbitzua, loturak edo autobusen maiztasuna, baina argitu zuten landa-taxia izeneko ekintza aurreikusita zeukatela. Osasunagaz lotuta, Osakidetza larrialdietako lehenengo medikazioa emateko aukera edukitzea eskatu zioten.

Txakurren gainerako ordenantza berria onartu zuten

ONDARROA //Txakurrei buruzko kontzientziazioan jarraitzeko bidean, Ondarroako Udalak berriro egin zuen animaliak edukitzea eta babestea arautzen zuen udal ordenantza. Txakurrak ordutegi zehatz baten solte ibili ahal izateko guneak eta edozein ordutan solte ibili ahalako ziren guneak izendatu zituzten. Bestalde, araudiari jarraituta, «arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak» ezin izango ziren, ez solte, ez muturrekorik barrik ibili. Horrez gain, argitu zutenez, hondartza ezin izango zuten erabili maiatzaren 1etik urriaren 15era arte. Bide batez, herri guztian txakurren gorotzak batu behar zirela gogoratu zuten. Ondarroko Txakurrak Babesteko Elkarteak hainbat alegazio aurkeztu zituzten ordenantzari.



MUNITIAK • AUSESTIGIA • ABURUAGA • AMOROTO • MINDESA

lea

leibarrak

LEA IBARRA
MANKOMUNAZGOA
Elexalde 1
41001 ABURUAGA
TEL: 94 684 29 62
leibarrak@leibarrak.org



Euskal erromeriek kaleak bete zituzten

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU //Maiatzaren 25ean, euskal erromeriak egin zituzten, Mutriku -argazkian- eta Lekeitio. Eguna goibel bazegoen ere, eguraldiak eutsi egin zuen, eta batean zein bestean ondo ibili ziren erromeriazaleak. Mutriku, gainera, arratsaldean ere Beheko Plaza girotu zuten dantzariak: musika talderik ez zuten eraman, baina musika ipinita, urte osoan ikasitakoa praktikan jarri zuten dantzariak.



Euskal erromerien urteroko plazak

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU //Mutriku eta Lekeitio -argazkian- dantzarien topagune bihurtu ziren, beste behin, maiatzeko azken zapatuan. Mutriku, gainera, arratsaldean ere Beheko Plaza girotu zuten dantzariak. Talderik eraman ez bazuten ere, musika ipinta, urte osoan ikasitakoa praktikan jarri zuten.




Bakardadean bizi ziren artzainak gogoan

ISPASTER //Ispasterren estreinatu zuten *Bakardadean bizi eta hil*, XX. mendean artzain lanetan aritzeko Ameriketara joandakoen bizipenak kontatzen zituen ikuskizuna. Era horretara, Ispasterko Udalak herritik artzain lanetan joandakoak omendu nahi izan zituen, bizibidearen bila bakardadean bizi beharra izan zuten herritarrak gogoan. Ekimena herriaren 500. urteurrenaren ekitaldien barruan sartzen zen.



Gazteen talentuaren bila jardun zuten

LEA-ARTIBAI //Lea-Artibai eta Busturialdeko kooperatiben mahaia, Azaro fundazioagaz elkarlanean, ekintzak prestatu zituzten eskualdeko umeei eta gazteei, ikasgaiak sustatu, nortasun sentimentua landu, industria ezagutu eta etorkizuneko langileen profilak ezagutzeko.





Eneritz Aulestia eta Julen Alonso, trikitilari onenak

MARKINA-XEMEIN //Maiatzaren 11n, Uni frontoiko harmailak bete egin ziren Markina-Xemeingo II. Helduen Trikitixa Txapelketaren deiari erantzunez. Eneritz Aulestia eta Julen Alonsok eroan zuten txapela, zortzi bikoteren artean egindako

lehian. Ekimena Baserri Egunaren baitan kokatu zen. Plazaberripea baserritarren postuz bete zen goizean, eta, batez ere, ilara luzeak egin ziren bildots errea prestatzen ari ziren gunean. 6 eta 14 kilo arteko piezak prestatu zituzten, 30 denetara.



Nagore Elu ikerlaria saritu zuten

ONDARROA //Baionan egin zen Iker Gazte 2019 kongresuan Nagore Elu ikerlari zientifiko ondarrutarra saritu zuten, Osasun zientziak arloan, Angelman sindromearen tratamenduaren inguruko lanari esker.



Parke Arkeologiko izaera

LEKEITIO //Euskal Jaurlaritzak Parke Arkeologiko izaera aitortu zion Lekeitioko Garraitz irlari, hainbat urtean udala eta Atabaka elkarte aitorpen hori lortzeko ahaleginetan ibili ostean.



Amankomunazgoak zabaldu egin zuten arreta zerbitzua

LEA-ARTIBAI //Lea-Artibaiko Amankomunazgoa Eguneko Arreta Zerbitzua eskaintzen hasi zen 65 urtetik gora eta mendetasun arriskua edo I. graduako mendetasuna zutenei, Lekeitioko, Ondarroako eta Markina-Xemeingo eguneko arreta zentroetan. Erabiltzaileek zerbitzua gaitasun ekonomikoaren arabera ordainduko zutela zehaztu zuten. Zerbitzuren helburuak honako hauek ziren: mendekotasun egoeran egon zitezkeen pertsonen sarritan jasaten zuten gizarte bazterketa egoera ekiditea, isolamendu egoerei aurre egitea, ahalik eta autonomia gehien mantentzen laguntzea eta ohiko bizi ingurunean jarraitzen laguntzea.

KAREAGA
ATEAK
TOLDOAK
KRISTALDEGIA




■ Ateak orokorrean
Leihoak
(PVC, aluminioa
eta egurra)
Aroztegiko lanak
Edozein
motatako kristalak
Toldoak

Buenaventura Zapirain, 6 - behea. LEKEITIO
Tel. 94 684 28 55 / Faxe. 94 684 15 27 / kareagaateak@euskalnet.net

Azoka egin zuten gizarte elkarteak aurkezteko

LEKEITIO // Avifes, Gorabide, Lekeitioko Elikagaien Bankua, Caritas, Nagusilan, Acambi, Euskadiko odol emaileen elkarte eta Alzheimer Ondarru Afagi elkarteak batu zituen udalak, guztien lana plazaratu eta boluntarioekin zuzenean harremanetan jartzeko aukera emateko.



Armen negozioaren eraginak gogorazi zituzten

MARKINA-XEMEIN // Armen negozioak errefuxiatuak eragiten dituela salatu zuten Markina-Xemeinen, ekainaren 20an, Pertsona Errefuxiatuen Egunean egin zuten elkarretaratzean. Hainbat elkarte egin zuten elkarretaratzerako deia, tartean Markina-Xe-

meingo Armagintzaren Kontrako Plataformak. Izan ere, herrian mortero fabrika bat zegoela gogorarazi zuten. «Hemen ekoizten dira etxeen eta familien gainean erortzen diren morteroak», gogorarazi zuten. Elkarretaratzean Yemengo errefuxiatuak egon ziren.



Herritar berriei ongietorria eman zieten

ONDARROA // Bigarren urtez jarraian, udalak ongietorria eman zien Ondarroara etorri berriei, eta ematen diren zerbitzuen berri eman. «Aurreiritzien kontra, kanpotik datozenek herria bizi-rik mantentzen laguntzen dute, bertan lan eginez eta bertan biziz», adierazi zuten udal ordezkariak.



Odol emaileei aitortza egin zieten

LEA-ARTIBAI // Ekainaren 13an, Odol Emaileen Mundu Mailako Egunaren bezperan, Bizkaiko Odol Emaileen Elkarteak urteroko omenaldia egin zien odol emaileei, Deustuko Unibertsitateko Paraninfoan. 40-50 bider odola eman zuten 217 bizkaitar omendu zituzten, tartean, eskualdeko bost lagun.



San Inazio, 7 beheko
ONDARROA
94-641 30 35



San Inazio, 7 beheko
ONDARROA (Gorabide)
94-609 97 04



LAYROK, S.L.
IGELTSERITZA
636 150 729 • 629 561 332
Gardotza Industrialdea, P 21 Eraikina • BERRIATUA



mantxua
Izotza - jantziak - Berritakoak (24)
LEKEITIO • 94-465 33 49



Zintzilik geratu zen zubiaren pieza.

Gorabeherekin kendu zituzten plaiko zubiaren lehen zatiak

ONDARROA //
Ezin izan zioten pieza baten pisuari eutsi, eta uretara erori zen

Ekainaren lehenengo astean, Ondarroako Plaiko Zubia zatika kendu eta konpontzera eroan zuten. Baina gorabeherak ere egon ziren, zatietako bat uretara erori zitzaizen eta.

Ekainaren 3an ekin zioten zereginari. Lehenengo zatia egun hartan kendu zuten, arazorik barik. Ebaki eta erreka ondoko

paseakeuaren eta Calatrava zubiaren inguruetan ipinitako garabiaren laguntzagaz atera, eta pasealekuan utzi zuten. Hurrengo egunean, beste zati bat ateratzekotan ziren arren, pisua «uste baino handiagoa» izan, eta garabiak ezin izan zion eutsi. Zati hori handik egun bira atera ahal izan zuten uretatik, ez ari nago. Gainontzeko zatiak arazorik gabe kendu zituzten.

Jakinmina

Lanak zirela eta, Ondarroako Udalak hainbat aldaketa egin zituen. Era horretara,

Alamedan garabia ipini zuten, Alamedako pareko zubi zati biak hantxe uzteko. Jakinminak eraginda, ugari izan ziren beharrak hurretik jarraitu nahi izan zituzten ondarrutarrak. Zubia 2016ko abuztuaren zarratu zuten, egitura mugitzen ari zela baieztatu ostean. Bizkaiko Foru Aldundiak bederatzi hilabeteko epea eman zuen zubia birgaitzeko. Adierazi zutenenez, zubia artisau eran konpondu nahi zuten, metodo tradizionala erabiltuta, eraiki zuten garaian modura, eta biratzeko gaitasuna berreskuratu du.

'Gure Leire' atzeman zuten drogaren aurkako operazioan

ONDARROA // Espainiako Aduana Zaintzeko Zerbitzuak Ondarroan errolatutako Gure Leire arrantzontzia atzeman zuen drogaren aurkako Marrazo operazioan. Surinamgo Errepublikatik zetorren ontzi handiago batetik droga fardelak hartuta zituela abordatu zuen maiatzaren 27an Azoreetako irletatik hurre, eta ekainaren 3an porturatu zen Vigon (Galizia). Guztira, purutasun handiko 84 drofa fardel deskargatu zituzten (2.500 kilo). Atzemanda-ko kopuruak 80 milioi euroko balioa izango zukeen legez kanpoko merkatuan. Zazpi marinela atxilotu eta esperatu zituzten behin-behinean, tarteetan, patroia eta armadorea. Era berean, polizia atxilotuen bizilekuak eta ondasunak miatu zituen.



Lagunkor



> Amaia Agirre Egia

> Aholkularitza
>> Inmobiliaria

info+ 94 683 18 02
info@lagunkor.eus
Artabide, 12 / Ondarroa



A group of 12 men, including the author, posing for a photo in front of a building. The men are arranged in two rows, with some standing and some kneeling or sitting in the front. They are dressed in casual attire, including jackets, sweaters, and jeans. The background shows a building with a brick facade and a dark roof. The photo is somewhat blurry and has a vintage feel.

Maguregi
Ryszard Kapuściński

Maguregi i wojna w Afganistanie

„Gazeta Wyborcza” 11.01.2002
„Jest to jeden z najlepszych
reportażów wojennych ostatnich lat”



Gisatu txapelketa, Iparraldeko Haizeetako izarra

LEKEITIO // Bertso saioagaz jarri zuten martxan XIX. Iparraldeko Haizeak ekimena, ekainaren 20an, barikuz. Hurrengo egunean, hilaren 21ean, kuadrillen arteko gisatu txapelketa jokatu zen, ekitaldi garrantzitsuenetakoa. Hamairu kuadrillak eman

zuten izena txapelketan, eta guztien artean Eik-Euk nagusitu zen. Gaiteroak, joaldunak, txistulariak eta batukada herriko bazter guztiak girotzen ibili ziren. Hilaren 22an, ekoizleen eta artisauen azoka prestatu zuten. 35 postu jarri zituzten.



Umeen Euskal Jaia, arrakastatsu

MUTRIKU // Gure Ametsa dantza taldeak egun osoko egitaraua prestatu zuen. Mutrikuko eta Zarauzko dantzariak bazterrak alaitu zituzten, eta jaia amaitzeko, erromeria antolatu zuten, Beheko Plazan.



Kontzijoje Rock, burrundadan

LEKEITIO // Lekeitioko musika elkarteak Burrundada eguna antolatu zuen, egun osoko jaia. Herriko musika taldeek hainbat tokitan jo zuten, eta, horrez gain, bazkaria, jolasak eta azoka ere prestatu zituzten.



Lagunkoia izateko pausoak azaldu zituzten

LEKEITIO // Lekeition, herri lagunkoiaren proiektuaren emaitzak aurkeztu zituzten. Zortzi arlo aztertu eta landu zituzten, 42 lan ildo finkatu eta 162 ekintza proposatu. Haietatik 82 epe laburrean gauzatzekoak zirela jakinarazi zuten; beste 70, epe ertainean; eta gainontzekoak, epe luzean. 2017an jarri zuten martxan prozesua, «adin guztietako herritarrekin lagunkoia izateko helburuz», eta ekintzak prozesu parte hartzaile baten bidez definitu zituzten. «Prozesu oso aberagarria izan da. Izan ere, bizilagunen ekarpenak eta ideiak ia bere osotasunean mantendu dira, teknikoki bideragarriak ez zirenak salbu», esan zuten.

Horma irudi historikoak berri zizuten

AULESTI // Ikusi Arte enpresak, udalaren eskariz, hiru margolan berri zituen, Trolebu Kultur Elkarteko eta Herri Batasuneko kideek 90eko hamarkadan egindakoak. «Herritarrek urte luzez aurrea eroandako borrokak bistaratzeko asmoz» erabaki zuten irudiok berritzea.



Plastiko hondakinak batu zituzten

MUTRIKU // Gazte batzuek plastiko hondakinak jaso zituzten, Mutrikuko Harribotean, borondatez. Harrien artean plastikozko poltsa asko zeudela ikusi zuten, eta batzea bururatu zitzaizen. 11 poltsa batu zituzten, eta handik pasatu ziren herritarrek esker ona agertu zieten egindakoagatik.



Jazzaldia publiko zabala erakarri zuen


MARKINA-XEMEIN // Arrakastaz ospatu zuten Markina-Xemeingo III. Jazzaldia. Izan ere, Uhagon Kultur Elkartek antolatzen duen ekimenak aurreko urteetan baino publiko zabalagoa batu zuen. Jendearen erantzunagaz batera, parte hartu zuten taldeen kalita-

tea azpimarratu zuten antolatzaileek. Horrela, indartzen eta egonkortzen doan jaialdia dela esan zuten. Besteak beste, Ghost Number & His Topsy Gypsies eta Brothers Brass Band taldeak eta Haizea Markuerkiaga herriko saxofoi jotzailea gonbidatu zituzten.



Arnasa Eguna ekintzaz beteta etorri zen

ONDARROA // Arnasa Eguna elkartasun jaia egin zuten bosgarren urtez jarraian, fibrosi kistikoa duten pertsonen eta familien alde. Antolatzaileek ekintzaz betetako egitaraua prestatu zuten, fibrosi kistikoa bistaratu eta gizartearen sentsibilizazioa lortzeko helburuagaz.



MERTXE
FRUTA-DENDA



P. Abaroa 45-LEKEITIO
94 684 27 94



OGITEGIA
PLAZA

ATXABAL, 4
LEKEITIO
94 684 02 07



Lekittoko Deabruak, Nazioarteko kale antzerki jaialdian.

20.000 ikusletik gora batu ziren antzerkizaleen hitzorduan

LEKEITIO //

Nazioarteko kale antzerki jaialdiak handikiro ospatu zuen 30. urteurrena

Jendetza batu zuen, beste behin, Lekeitioko Nazioarteko Kale Arteen Jaialdiak. Antolatzaileen arabera, 20.000 pertsona baino gehiago batu zituen Kalekak 30. urteurrenean.

Eguraldi onak lagunduta, jarduera guztiak normaltasun osoz aurrera eramanez ahal izan zituzten.

«Lau egunean 21 ekintza egin dira, eta ikusleen parte hartzea handia izan da», adierazi zuten. Jaialdian, 19 konpainia eta kolektibok parte hartu zuten. Lekeitiarrak, batez ere, Lekittoko Deabruen emanaldia ikusteko desiratzen zeuden, eta eskaintzak ez zuen hutsik egin. Izan ere, deabruak su eta argiz piztu zituzten herriko kaleak, eta jai pirotekniko erraldoia eskaini.

Lan espazioa

Antolatzaileek Kaleka Scratch sekzioaren lan espazioak sendotzen jarraitzen zuela esan zuten.

«Aurten, garapenean daudden bost lan ikusi ahal izan ditugu: bizitzak emandako zaplastekoei aurre egiten dion Cie De Chaniereren pieza, Cia Es Circeren sinpletasuna eta inprobisazioa, La Buena Compañiaren norbanakoen akzioak eta erre-akzioak, Compañia La Intrepidaren lan komikoa eta Lokkeren performance ibiltaria», azaldu zuten. Horrez gain, esperimentazio espazioen estreinaldiek ere harrera on-ona eduki zutela aitatu zuten, eta herriko elkarteekin egindako kolaborazioak indar handi handia hartzen ari zirela ere bai.

Lehen mundu biran herriak eduki zuen papera gogoratu zen

LEKEITIO // Lehen mundu biraren 500. urteurrenaren harira, Lekeitio Lehen Mundu-biran jardunaldiak egin zituzten. Atabaka kultur elkarteak antolatutako ekimenean, historia hobeto ezagutzeko aukera eman zuten. Besteak beste, antzezpena eskaini zuten. Aitor Abaroa lekeitiarra Nikolas Areita Magallanesen espedizioaren antolatzailearen paperean sartuta, Mendieta ontzio laraino joan ziren, kalejirari. Horrela gogoratu nahi izan zuten Mendieta egin zutela espedizio hartako ontzirik esanguratsuenak, *Santa Katalina Sienakoa*, gero *Trinidad* izatera pasa zena. Areitaren paperean, Abaroak Domingo Barruti espedizioan joan zen marinel lekeitiarraren eta haren arbasoen gora-beherak ere kontatu zituen.



osteopatia eta osasun zentroa

- osteopatia
- homeopatia
- koloniko fisioterapia
- medikuntza biologikoa
- E.A.T. (diagnostiko zehatza)
- Elkarrekin pertsonalizatua

Maipe
González

Arañaketa, 4 beheko BERRIATUA 94 613 98 34

MARGO-LAN C.B.

- Pintura apaingarria
- Pintura industriala
- Fatxadak, komunitateak...
- Zoru launak eta bermeak

655 70 53 26 / 610 33 53 83
margolan15@gmail.com

Kaminazpi, 53 beheko esk. ONDARRUA



ONDARROA //Txomin Agirre ikastolaren sotoko aparkalekuak 30 urterako emakida modura eskatzeko epea zabaldu zuten. Bi solairutan banatuta, 137 aparkaleku jarri zituzten aukeran; zortzi, trastelekuagaz. Trasteleku bako aparkalekuak 14.600 eurotan eskuratu ahal ziren, eta trastelekudunak, 20.500 eurotan.



A person is standing on a paved area, looking towards a large, steep, rocky hillside. A small white structure is visible on the hillside. The scene is outdoors, with a grassy area in the foreground and a paved area in the background.

MUTRIKU // Udalaren ekimenez, saskibaloian eta boleibolean ibiltzeko kantzak ipini zituzten hondartzan. Azpiegitura 10:00etatik 21:00etara erabili ahal zen, eta beharrezko materiala utzi zieten erabiltzaileek. Udalak jakitera eman zuenez, azpiegitura berriak «oso harrera ona» eduki zuen.

in REVISTA DE CULTURA E ENTRETENIMENTO

PABILIOI BERRIAK AUKERAN

ENTRE

14.000 €



Marrazoak harrapatzeagatik zigortu zituzten

ONDARROA //Gernika-Lumoko lehen auzialdiko eta instrukzioko bigarren auzitegiak Ondarroako portuan izena emanda zegoen *Tonino Segundo* ontziko arduradunak zigortu zituen. Ingurumenaren aurkako delitua egitea leporatu zien patroiarri eta ontzi jabe-

ari, 2018ko apirilean, babestutako *Lammasus* espezieko hogeit hamar muturmotz atzeman ostean. Bakoitza 600 euroko isuna ordaintzera zigortu zituen, eta hiru hilabete eta hamar egunean galarazota eduki zuten arrantzatzea.



Aitor Olea organojolea, bueltan

LEKEITIO //Uztailaren 13an, Aitor Olea Juaristi organo jotzaileak kontzertua eman zuen Andra Mariaren Zeruratzea basilikan. 1988tik 2008ra bitartean, Lekeitioko basilikako organo jotzailea izan zen.



Lehen euskal ezkontza, kalean



LEKEITIO //Beste urte batez, garai bateko euskal ezkontza bat zelakoa zen ikusteko aukera egon zen Lekeition, Gora Buru elkar-tearen eskutik. Uztailaren 12an gurdia pres-tatu, eta 13an etxe sartzea antzeztu zuten.




Hondakinen bilketa sistema berria martxan jarri zuten

LEA IBARRA //Udal Mankomunazgoak hondakinen bilketa sistema berria martxan jarri zuen. 54 gune zehaztu zituen: Munitibarren eta Aulestin, 12na; Gizaburuagan, 5; Amoroton, 11; eta Mendexan, 14. Bakoitzean, hondakin organikoaren eta errefusaren ontzi berriak jarri zituzten. Etxean jasotako txartelagaz ireki ahal zituzten errefusaren eta organikoaren edukiontzia, txip bidez. Argitu zutenenez, organikoa egunero atera ahal zen; eta errefusa, domeketan edo egunetan baino ez. Plastikoa eta beira egunero bota ahal zen edukiontzietara, baina txartel premiarik gabe. Eta denak zehaztutako guneetan baino ezin ziren edukiontzietara bota.

MARKINA-XEMEINGO UDALA



www.markina-xemeingo.eus
www.markina-xemeingo.eus



Entzus parean, errei bat zarratuta egon zen

MUTRIKU // Galbaixorako bidean, Entzus parean, errei bat zarratuta egon zen, errepide zati bat erori ostean. Gipuzkoako Foru Aldundiak errepidea konpondu bitartean, zirkulazioa semaforo bidez bideratu zuten. Mutriku-Deba errepideko lanen eraginez, trafikoa Galbaixotik bideratzen jarraitu zuten.



Txomin Agirre ikastolak atea zarratu zituen

